Intxaurrondoko anbulatorioaren sarrerak.

Sarbide-baldintza duin batzuk bermatzeak ekarriko du irtenbidea. Intxaurrondoko anbulatorioaren sarbideek eta orain duen kokapenak ez dituzte baldintza horiek betetzen. Auzotarrek pairatzen dituzten arazo horien konponbidea anbulatorioa beste leku batean jartzea besterik ezin du izan.

Era berean, HAPOren aurrerapena ikusita –1.250 etxebizitza baino gehiago eraikitzea aurreikusten baitu han–, kontuan izan behar dira han izango den biztanleria-hazkundeari erantzuteko behar izango diren ekipamenduak ere.

Horregatik, guk uste dugu ez dagoela gehiago atzeratzerik intxaurrondotarren beharrei erantzutea, urteak baitaramatzate anbulatorio bat eskatzen, baldintza duinetan sartu ahal izateko eta lehen mailako arretako zerbitzu duina bermatzeko izan behar diren baliabideak izango dituena.

Hori dela eta, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Udalarekin koordinatzeko Intxaurrondon anbulatorio berria egiteko egin behar diren urratsak egiteko, irisgarritasun unibertsala eta lehen mailako arretako zerbitzu duina bermatzeko moduko anbulatorioa.

Donostia, 2023ko azaroaren 3a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia".

una mejor accesibilidad al ambulatorio de Intxaurrondo.

La solución viene de poder garantizar unas condiciones de acceso dignas. Los accesos al edificio del ambulatorio de Intxaurrondo y su emplazamiento actual no reúnen tales condiciones. La solución a estos problemas que vienen sufriendo vecinos y vecinas del barrio solo puede venir de su ubicación en un nuevo emplazamiento.

Asimismo, y a la vista del avance del PGOU que prevé la construcción de más de 1250 viviendas en la zona, se deben tener en cuenta también los equipamientos necesarios para responder al incremento de población previsto.

Por ello, consideramos que no se puede dilatar más en el tiempo responder a las necesidades de los y las vecinas de Intxaurrondo que llevan años demandando un ambulatorio al que se pueda acceder en condiciones dignas y que tenga los recursos necesarios para garantizar un servicio digno de atención primaria.

Por ese motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Vasco a coordinarse con el Ayuntamiento para dar los pasos necesarios para la construcción de un nuevo ambulatorio en Intxaurrondo que garantice la accesibilidad universal y un servicio digno de atención primaria.

Donostia, a 3 de noviembre de 2023

Arantza González García
Concejala del grupo municipal Elkarrekin

Donostia"

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Vélez de Pablos andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Kerman Orbegozo Uribe jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D. Kerman Orbegozo Uribe, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**EH BILDU TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO 1. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EH BILDU TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EH BILDU TALDEAK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 PRESENTADA POR EL GRUPO EH BILDU AL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**EAJ/PNV ETA PSE-EE TALDEEK 10. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA PRESENTADA POR LOS GRUPOS EAJ/PNV Y PSE-EE AL ASUNTO Nº10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hogeita

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en

hiruko azaroaren hogeita hiruan egindako ohiko bileran, gehiengoz onetsi zuen Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztutako mozio arrunt hau, Intxaurrondo anbulatorioari buruzkoa. Mozio horretan, gehiengoz onartutako zuzenketa bat sartu zen, EAJ eta Sozialista Donostiarrak PSE-EE taldeek aurkeztua, ebazpen-zatia ordeztekoa. Hona hemen onartutako testua:

"INTXAURRONDOKO ANBULATORIOARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Intxaurrondon herritarren irisgarritasuna bermatzeko moduko anbulatorio berria behar izatearen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, UDALBATZAREN OSOKO BILERAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondotarrak –auzoko kolektibo batzuen bidez– eta anbulatorioko langileak berak ere aspalditik ari dira Intxaurrondoko anbulatorioak irisgarritasun aldetik dituen gabeziak adierazten.

Udalak ere badu Intxaurrondo Osasun Zentroko Lehen Mailako Arretako Unitateko buruak helarazitako salaketa. Mugikortasun urriko pertsonentzat zentroaren irisgarritasuna eskasa dela egiaztatu eta hobetzeko eskatzen du.

Zehazki, zera adierazi zuen arduradun hark lehen esan dugun salaketan: Sarrerara iristeko bi eskailera-aldi pasatu behar dira, eta sartzeko aldapak, sarreratik urrun izateaz gainera, oso malda pikoa du gurpil-aulkian ibiltzeko. Era berean, gurpil-aulkian doazenek indar fisiko handia izan behar dute aldapa hori igo ahal izateko. Aste honetan bertan ikusi ahal izan dugu zenbat indar egin behar izan duten bi pertsonak gurpil-aulkian zihoan pertsona bat aldapan gora

Sesión Ordinaria celebrada el día veintitrés de noviembre de dos mil veintitrés, aprobó, por mayoría, la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al ambulatorio de Intxaurrondo, que incorpora una enmienda aprobada por mayoría, presentada por los Grupos EAJ/PNV y Socialistas Donostiarras PSE-EE, de sustitución de la parte dispositiva, siendo el texto aprobado literalmente como sigue:

"MOCIÓN ORDINARIA RELATIVA AL AMBULATORIO DE INTXAURRONDO

Arantza González García, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA PARA SU DEBATE EN PLENO relativa a la necesidad de un nuevo ambulatorio en Intxaurrondo que garantice la accesibilidad del vecindario.

JUSTIFICACIÓN

El vecindario de Intxaurrondo, a través de los colectivos vecinales, así como el personal del centro ha trasladado desde hace años las carencias del ambulatorio de Intxaurrondo en materia de accesibilidad.

El propio ayuntamiento cuenta con la denuncia trasladada por la Jefa de la Unidad de Atención Primaria del C.S. Intxaurrondo donde acreditaba que la accesibilidad al centro es deficitaria para las personas de movilidad reducida y solicitaba la mejora de su accesibilidad.

Concretamente, señalaba que "para llegar al acceso hay que atravesar dos tramos de escaleras y que la rampa de acceso, además de estar alejada a la entrada del centro, tiene una pendiente muy grande para las sillas de ruedas. Igualmente los acompañantes de estas personas que acuden en silla de ruedas precisan de fuerza física considerable para poder subir la cuesta de la referida rampa. Esta misma semana hemos, podido

igotzeko.

comprobar el esfuerzo realizado entre dos personas para poder empujar a una tercera que iba en silla de ruedas".

Oraindik ez da aurrerapen handirik egin, ordea, horretan, nahiz eta 2019ko urriko osoko bileran mozio bat onartu zen, proposamen hau zekarrena:

No se han producido avances significativos, a pesar de haber sido aprobada una moción en pleno en octubre de 2019 donde se acordó la siguiente propuesta:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hobetu eta egokitu ditzala Intxaurrondoko anbulatorioaren sarrerak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a garantizar una mejor accesibilidad al ambulatorio de Intxaurrondo.

Sarbide-baldintza duin batzuk bermatzeak ekarriko du irtenbidea. Intxaurrondoko anbulatorioaren sarbideek eta orain duen kokapenak ez dituzte baldintza horiek betetzen. Auzotarrek pairatzen dituzten arazo horien konponbidea anbulatorioa beste leku batean jartzea besterik ezin du izan.

La solución viene de poder garantizar unas condiciones de acceso dignas. Los accesos al edificio del ambulatorio de Intxaurrondo y su emplazamiento actual no reúnen tales condiciones. La solución a estos problemas que vienen sufriendo vecinos y vecinas del barrio solo puede venir de su ubicación en un nuevo emplazamiento.

Era berean, HAPOren aurrerapena ikusita –1.250 etxebizitza baino gehiago eraikitzea aurreikusten baitu han–, kontuan izan behar dira han izango den biztanleria-hazkundeari erantzuteko behar izango diren ekipamenduak ere.

Asimismo, y a la vista del avance del PGOU que prevé la construcción de más de 1250 viviendas en la zona, se deben tener en cuenta también los equipamientos necesarios para responder al incremento de población previsto.

Horregatik, guk uste dugu ez dagoela gehiago atzeratzerik intxaurrondotarren beharrei erantzutea, urteak baitaramatzate anbulatorio bat eskatzen, baldintza duinetan sartu ahal izateko eta lehen mailako arretako zerbitzu duina bermatzeko izan behar diren baliabideak izango dituena.

Por ello, consideramos que no se puede dilatar más en el tiempo responder a las necesidades de los y las vecinas de Intxaurrondo que llevan años demandando un ambulatorio al que se pueda acceder en condiciones dignas y que tenga los recursos necesarios para garantizar un servicio digno de atención primaria.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por ese motivo, presentamos la siguiente:

MOZIO ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Osakidetzari azter ditzala Intxaurrondoko anbulatorioak zerbitzua ahalik eta ondoen ematen jarrai dezan egin beharreko oraingo eta etorkizuneko hobekuntzak".==============

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a Osakidetza a estudiar las mejoras presentes y futuras necesarias para que el ambulatorio de Intxaurrondo continúe prestando su servicio de la mejor forma posible".==========================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion

Y para que así conste y surta los efectos

ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, sinaduraren egunean.

procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, en la fecha de la firma.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”

---------------

**11. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Txomin Eneako etorkizuneko bizilagunen egoerari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Txomineneko babes ofizialeko 146 etxebizitzen egoerari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du, Udalbatzan eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Beste behin ere, etsipena eta babesgabetasuna adierazi dute Txomineneko bizilagun izateko zain urteak daramatzaten pertsona batzuek, haien etxeak egitea etengabe atzeratzeak eta horrek dakartzan ondorio emozional eta ekonomikoak direla eta.

Ez Eusko Jaurlaritza, ez enpresa sustatzailea ez dira argi aritu 146 etxebizitza horien esleipendunekin, eta etsipena eta ziurgabetasuna ekarri dio horrek lehen ere denbora asko luzatu eta familia horien ekonomiari kalte egiten ari den egoerari. Hala, Arartekoarengana, Zuzenean zerbitzura (Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzua) eta Udal honetara ere jo behar izan

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, relativa a la situación de los futuros vecinos de Txomin Enea.**

“Borja Corominas Feisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, para su debate en el Pleno, sobre la situación de las 146 viviendas de VPO en Txomin Enea.

JUSTIFICACIÓN

Una vez más, los que llevan años para ser vecinos de Txomin Enea muestran su desesperación y desamparo ante los continuos retrasos en la finalización de esa promoción y las consecuencias emocionales y económicas que derivan de ello.

Ni el Gobierno Vasco, ni la empresa promotora han sido transparentes con los adjudicatarios de estas 146 viviendas. Lo que ha añadido desesperación e incertidumbre a una situación que se está alargando mucho en el tiempo y que está teniendo un impacto negativo en la economía de estas familias. Tanto es así, que han tenido que acudir  al Ararteko, a Zuzenean, Servicio de Atención a la Ciudadanía del Gobierno Vasco, e

dute pertsona horiek.

Horiek horrela direla, hauxe da Alderdi Popularraren udal taldeak dakarren MOZIO ARRUNTA:

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio heltzeko gaiari eta etxebizitzen egoeraren egiazko informazioa emateko sustapenaren esleipendunei.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eskatutako azken luzapena aintzakotzat hartu (2024ko otsaila) eta garaiz eta ondo bukarazteko obrak eraikuntza enpresari.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta gehien murrizteko Etxebidek obra amaitu ondoren bete behar dituen izapideak egiteko epea.

Donostia, 2023ko azaroaren 3a.

Borja Corominas Fisas,
Talde Popularraren bozeramailea”

incluso a este Ayuntamiento.

Es por ello por lo que el Grupo Municipal del Partido Popular presenta la siguiente
MOCIÓN ORDINARIA:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que tome cartas en el asunto y facilite información veraz a los adjudicatarios de la promoción sobre la situación de las viviendas.

2. El Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que apremie a la constructora para que finalice las obras en tiempo y forma según la última prórroga solicitada (Febrero del 2024).

3. El Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Gobierno Vasco a que reduzca al mínimo el plazo para realizar los trámites que Etxebide tiene que cumplir una vez finalizada la obra.

San Sebastián, a 3 de noviembre de 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Popular”

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D. Victor José Lasa Briz, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BORJA COROMINAS FISAS JAUNAK MOZIO ARRUNTA ERRETIRATU DU.**

**EL SR. BORJA COROMINAS FISAS RETIRA LA MOCIÓN ORDINARIA.**

--------------

II.2

KONTROL MOZIOAK

II.2

MOCIONES DE CONTROL

1. eta 3. kontrol mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 1 y n.º 3.

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Udal eraikinetako garbitzaileen egoerari buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko irailaren 18an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Eraikinak Garbitzeko Zerbitzua osatzen duten langileek (184 emakume inguru) hilabeteak daramatzate beren lan-prekarietatea salatzen: ekipamendu eskasa, kontziliazioa oztopatzen duten ordutegiak, aldi baterako kontratazioak eragindako prekarietatea, urtean 5.200 eurotik gorako soldata-arrakala, lan-osasuneko arazoak eta abar.

Beren egoera behin baino gehiagotan trasladatu diete Udal Gobernuko ordezkariei eta oposizioko udal taldeei eta hainbat kontrol mozio onartu dira Udal Gobernuak esku har dezan. Hain zuzen ere, uztaileko udalbatzarrean honako puntu hauek jasotzen zituen kontrol mozioa onartu

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el estado del personal de limpieza de los edificios municipales.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales el pasado 18 de septiembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

El personal que integra el Servicio de Limpieza de Edificios Municipales (unas 184 mujeres) lleva meses denunciando su precariedad laboral: falta de equipamiento, horarios que dificultan la conciliación, precariedad por contratación temporal, brecha salarial superior a los 5.200 euros anuales, problemas de salud laboral, etc.

En varias ocasiones han trasladado su situación a los representantes del Gobierno Municipal y a los grupos municipales de la oposición y se han aprobado diversas mociones de control para la intervención por parte del Gobierno Municipal. En concreto, en la sesión plenaria de julio

genuen:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari joan den astelehenean udal eraikinetako garbitzaileekin egindako bileran langileek helarazitako kezkak konpontzeko neurriak har ditzala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bitartekari lana egin dezala enpresarekin, langileen soldata-arrakala gainditzeko eta garbitzaile guztien desberdintasunik gabeko lan baldintza duinak bermatzeko.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2022an Udalbatzak onartutako kontrol mozioak eskatzen zuen genero txostena partekatu dezala udal talde guztiekin eta udal eraikinen garbiketa zerbitzuko ordezkari sindikalekin.

Delegatuak zein langileen komiteak adierazi diguten bezala, lehenengo eta bigarren puntuak aurrera eramateko pauso batzuk egin dira, baina, oro har, garbitzaileen lan egoera ez da hobetu eta gaur egun zerbitzua kudeatzen duen enpresarekin negoziazio prozesua blokeatuta dago. Hain zuzen ere, egoera berriro salatzeko, hainbat garbitzaile elkartu ziren udaletxeko atarian urriaren 4an eta idatziz erregistratu zuten Udal Gobernuari zuzendutako laguntza eskaera. Era berean, hainbat salaketa jarri dira epaitegian zein Lan Ikuskaritzan lan-baldintzan direla eta.

2022ko urritik pendiente dagoen zerbitzuaren genero ikuspegiaren txostenari dagokionez, urtea

aprobamos una moción de control que recogía los siguientes puntos:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en reunión mantenida el pasado lunes con el personal de limpieza de edificios municipales, tome medidas para resolver las inquietudes trasladadas por el personal.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a mediar con la empresa para superar la brecha salarial del personal y garantizar que todas las personas limpiadoras tengan unas condiciones de trabajo dignas y sin desigualdades.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que comparta con todos los grupos municipales y con los representantes sindicales del servicio de limpieza de edificios municipales el informe de género que exigía la moción de control aprobada en el pleno en 2022.

Como nos indican tanto el delegado como el Comité de Personal, se han dado algunos pasos para llevar a cabo los puntos primero y segundo, pero en general, la situación laboral del personal de limpieza no ha mejorado y actualmente el proceso de negociación con la empresa que gestiona el servicio está bloqueado. De hecho, para volver a denunciar la situación, varias limpiadoras se reunieron en la entrada del ayuntamiento el pasado 4 de octubre y registraron por escrito la solicitud de ayuda dirigida al Gobierno Municipal. Asimismo, se han interpuesto varias denuncias tanto en el Juzgado como en la Inspección de Trabajo por las condiciones de trabajo.

En cuanto al informe de perspectiva de género del servicio pendiente desde octubre de 2022, a

bukatzeko hilabete falta denean, ez da oraindik egin, nahiz eta 2023ko iraileko batzordeetan delegatuak adierazi zuen zerbitzuaren pleguei buruzko genero-txostena egiten ari zela, udal langile bat zegoela gaiaren gainean, uztaileko osoko bilkuran erabakitakoaren arabera, eta urte bukaera baino lehen entregatuko zela.

falta de un mes para finalizar el año, aún no se ha elaborado. a pesar de que en las comisiones de septiembre de 2023 el delegado manifestó que se estaba elaborando el informe de género sobre los pliegos del servicio, que había una trabajadora municipal trabajando en ese asunto, según lo acordado en el pleno de julio, y que se entregaría antes de fin de año.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zerbitzuaren genero txostena egin eta aurkeztu dezala 2024ko otsaila baino lehen, plegu berrietan txostenaren ondorioak aplikatu ahal izateko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que elabore y presente el informe de género del servicio antes del mes de febrero de 2024, a fin de aplicar las conclusiones que se recojan en él en los nuevos pliegos.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal eraikinak garbitzeko zerbitzua lizitzatzeko plegu berrietan, langileen soldata-arrakala gainditzeko neurriak kontuan har ditzala.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en los nuevos pliegos para la licitación del servicio de limpieza de los edificios municipales, tenga en cuenta medidas para superar la brecha salarial del personal.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, indarrean dagoen lizitzazioa amaitu baino lehen, pleguen betetze mailaren inguruko ebaluazioa egin dezala.

3.- La Corporación insta al Gobierno Municipal a que, antes de finalizar la licitación en vigor, realice una evaluación del grado de cumplimiento de los pliegos.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

San Sebastián, 16 de noviembre de 2023

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu”

**II.2.3. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Udal-eraikinak garbitzeko kontratua gauzatzeari buruzkoa (II. lotea).**

**II.2.3. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la ejecución del contrato de limpieza de edificios**

**Municipales (lote II ).**

“Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 98. artikuluaren babesean, udal-eraikinak garbitzeko kontratua (II. lotea).gauzatzearen inguruko KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko zinegotzi ordezkari Lopez andereari, 2023ko irailaren 18ko Zerbitzu Orokorretako batzordean dagokion interpelazioa aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den irailaren 18an, Gobernantza Ireki, Digital eta Kolaboratiboko ordezkari López andreari interpelazio bat aurkeztu genion, udal-eraikinak garbitzeko kontratua (II. lotea) gauzatzeari eragiten dioten hainbat alderdiri buruzkoa.

Kontratu horri dagokionez, abuztuaren 1ean, Tokiko Gobernu Batzarrak aurreikusi gabeko lehen aldaketa eta kontratu honen aurreikusitako bigarren aldaketa onartu zituen, eta alegatu zuen otsailaren 1etik ekainaren 30era kontratuaren baldintza agirietan xedatutakoarekiko baino ordutegi zabalagoan oinarrituta egin zela aldaketa hori, langileen plantilla kontratu berriarekin onartutako fitxetara egokitzeko helburuarekin».

Iraileko batzordean adierazi genuen bezala, berregokitze horrek langile batzuk bidegabeki kaleratzea ekarri du; hau da, enpresak berak aitortu du ez dagoela langile horiek kaleratzeko arrazoirik. Kaleratze horiek, gainera, ez zaizkie behar bezala jakinarazi ez eragindako langileei, ez sindikatuen ordezkariei. Horren ondorioz, hainbat salaketa jarri dituzte lan-agintaritzetan.

“Arantza González García concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la INTERPELACIÓN a la concejala delegada de Gobernanza Abierta, Digital y Colaborativa, Sra. López, en la Comisión de Servicios Generales del 18-09-2023, relativa a la ejecución del contrato de limpieza de edificios municipales (Lote II).

JUSTIFICACIÓN

El pasado 18 de septiembre interpelamos a la Delegada de Gobernanza Abierta, Digital y Colaborativa, Sra. López, en relación con diversas cuestiones que afectan a la ejecución del contrato de limpieza de edificios municipales (lote II).

Respecto a este contrato, 1 de agosto la Junta de Gobierno Local procedía a la aprobación de la primera modificación no prevista y segunda modificación prevista del este contrato, alegando que entre el 1 de febrero y el 30 junio se ha realizado en base a un horario ampliado respecto al establecido en los pliegos del contrato, con el objetivo de reajustar la plantilla del personal a las fichas aprobadas con el nuevo contrato”.

Como manifestamos en la comisión de septiembre, ese reajuste ha supuesto el despido improcedente de algunas trabajadoras, es decir que la propia empresa reconoce que no existe ninguna causa para despedirlas. Despidos que, además, no han sido comunicados debidamente ni a las trabajadoras afectadas, ni a la representación sindical. Lo que ha derivado en varias denuncias ante las autoridades laborales.

Bidegabe egindako kaleratze horiek enpresa adjudikaziodunak aprobetxatu ditu, hain zuzen ere zerbitzuaren orduko prezioa kalkulatzeko oinarritzat hartu den eraginkortasun mugatuko akordioaren ordez, Gipuzkoako hitzarmena aplikatzen zaien beste langile batzuk kontratatzeko. Horrek esan nahi du langile berriek lan bera egiteagatik subrogatutakoek baino 417,67 € gordin gutxiago kobratzen dituztela hilean.

Esos despidos improcedentes son aprovechados por la empresa adjudicataria para contratar a otras trabajadoras a las que se les aplica el convenio de Gipuzkoa, en lugar del acuerdo de eficacia limitada en base al cual se ha calculado el precio/hora del servicio. Lo que supone que las nuevas trabajadoras cobran 417,67 € brutos mensuales menos que las subrogadas por hacer exactamente el mismo trabajo.

Soldata-eskala bikoitza, inola ere onartu beharko ez litzatekeena; are gutxiago egiten den lanaren oinarria administrazio publiko batekin egindako kontratu bat denean, langileen artean desberdintasunak sortzen dituzten egoerak ez lirateke inola ere onartu behar.

Una doble escala salarial que no se debería permitir bajo ningún concepto; menos aún cuando el trabajo que se realiza tiene como base un contrato con una administración pública que no debería admitir situaciones que generan desigualdades entre personas trabajadoras.

Badira soldata-eskala bikoitzari buruzko epaiak, hala nola 27/2004 epaia, martxoaren 4koa, Konstituzio Auzitegiarena. Horren arabera, soldata-eskala bikoitzak «ematen duen euskarri bakarra talde bat bereizi eta hari tratu okerragoa eman eta hura gutxiestea da, eta horrek ez du lekurik Konstituzioan, berdintasun-printzipioaren argitan (EKren 14. art.), ez eta gure Zuzenbide Estatuan ere, hain zuzen ere konnotazio horrek ezartzen duen ikuspegi sozialean kontuan hartuta, zehazki, gizabanakoen eta gizataldeen benetako berdintasunarekin lotuta ( EKren 9.2. art.)».

Existen sentencias sobre la doble escala salarial, como la 27/2004, de 4 de marzo,del Tribunal Constitucional que dice que la doble escala salarial “no ofrece otro soporte visible que una minusvaloración de un grupo segregado y peor tratado, lo que no tiene acomodo en la Constitución a la luz del principio de igualdad (art. 14 CE), ni tampoco en la perspectiva social que impone esa connotación de nuestro Estado de Derecho en conexión con la igualdad efectiva de los individuos y los grupos en que se integra (art. 9.2 CE)”.

Gainera, egoera horrek ondorio ekonomikoak ditu Udalaren diru-sarreretan, enpresa langile guztiek lan egindako orduak prezio berean fakturatzen ari delako, enpresa hileko 400 € baino gehiagoko aldea duten soldatak ordaintzen ari denean. Negozio ona enpresarentzat, zalantzarik gabe, ez ordea Udalaren finantzetarako. Udal-gobernuak aztertu beharko luke ea horrek enpresa bidegabe aberastea edo lege-iruzurra sor dezakeen.

Además, esta situación también tiene repercusiones económicas para las arcas municipales, porque la empresa está facturando las horas trabajadas por todo el personal al mismo precio, cuando ella está pagando sueldos con diferencias mensuales de más de 400 €. Un buen negocio para la empresa, sin duda, no así para las arcas públicas. El gobierno municipal debería analizar si esto podría suponer un enriquecimiento ilícito por parte de la empresa, o un fraude de ley.

Udalak ordaintzen ditu fakturak, eta, beraz, ezin da onartu diru publikoa langileen lan-baldintzen prekarizazioan sakontzeko erabiltzea, ez eta, zalantzarik gabe, zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen etekinak handitzeko ere.

Es el Ayuntamiento quien paga las facturas, por lo que es inadmisible que el dinero público se utilice para profundizar en la precarización de las condiciones laborales de los y las trabajadoras, y para aumentar, de manera muy dudosa, los beneficios de las empresas que los prestan.

Horri gehitu behar zaio, langileen ordezkariek adierazi digutenez, enpresa ez dela ari langileei Gipuzkoako hitzarmenaren mendeko langile berriek betetzen dituzten lanpostu hutsak eskaintzen, hilean 417 euro aurrezten baititu. Eta soldata-eskala bikoitzeko egoera hori iraunarazteko, hitzarmen kolektiboaren negoziazio-mahaiaren lehen bileran, enpresak aitzakia bat bilatu du negoziatzeko prest ez dagoela justifikatzeko, eta horrela, egoera hori ahalik eta gehien luzatzeko.

A ello hay que sumar que, según nos han trasladado las representantes de las trabajadoras, la empresa no está ofreciendo al personal puestos vacantes que sí son ocupados por personal nuevo sujeto al convenio de Gipuzkoa, ahorrándose 417€/mes. Y para perpetuar esta situación de doble escala salarial, en la primera reunión de la mesa de negociación del convenio colectivo, la empresa ha buscado una excusa para justificar que no está dispuesta a negociar, claramente para prolongar al máximo esa situación.

Gainera, emakumezko langileek beste ez-betetze batzuk jakinarazi dizkigute, hala nola erabiltzen dituzten produktuei buruzkoak edo hondatzen diren elementuen hornidura oso eskasari buruzkoak (produktuak etiketatu gabe; komuneko paper-barrak; komunontzi hondatuak; lanbasak...).

Además, las trabajadoras nos trasladan otra serie de incumplimientos como son los relativos a los productos que utilizan o al muy deficiente suministro de elementos que se estropean (falta de etiquetado de los productos; portarrollos de papel higiénico; inodoros estropeados; fregonas …)

Era berean, fitxaketa-sistemarekin arazoak izaten jarraitzen dute zenbait zentrotan. Ordezkapenak ez dira betetzen kontratatutako orduetan, eta horietako batzuetan orduak aldatu diren arren, eraikinen fitxa teknikoek gaizki jarraitzen dute, ez baitatoz bat ordutegiekin edo ez dauden elementuak ere adierazten baitituzte (igogailua Larratxoko jubilatuen elkartean).

Igualmente, los problemas con el sistema de fichaje siguen existiendo en algunos centros. Las sustituciones no se cumplen en las horas contratadas, y a pesar de las modificaciones de horas que se han hecho en algunos de ellos, las fichas técnicas de los edificios siguen mal ya que no se corresponden en horarios o indican elementos que ni tan siquiera existen (ascensor en el hogar de jubilado de Larratxo).

Era berean, zentro batzuetan ez dituzte jasotzen zerbitzuaren kalitatearen jarraipena egiteko bete behar dituzten kalitate-kontroleko orriak. Galdera

Asimismo, algunos centros han dejado de recibir las hojas de control de calidad que deben cumplimentar para hacer un seguimiento de la

hau egitera garamatza horrek: nola egiaztatzen du udal-gobernuak ematen den zerbitzua bat datorrela kontratuan sinatutakoarekin?

Emakumezko langileen lan-baldintzei dagokienez, gogorarazi behar da, halaber, 2022ko martxoko Udalbatzak onartu zuela langileen aldagela-espazioak hobetzea. Egoera horrek, gaur egun, konponbiderik gabe jarraitzen du, eta horrek esan nahi du askotan garbiketa-materiala gordetzeko gela erabili behar izaten dutela aldagela gisa, inolako gutxieneko baldintzarik gabe.

Azken batean, funtsezko zaintza-lan bat, hau da, eskolak edo haur-eskolak garbitzea, non Donostiako haurrek ordu asko ematen dituzten, gutxietsi egiten da lan hori egiten duten emakume langileen lan-baldintzen prekarizazioaren bidetik, nahiz eta, hala eta guztiz ere, emakume horiek profesionaltasun osoz egiten duten beren lana.

Egoera hori ez da salbuespenezkoa, administrazio publikoek azpikontratatutako zerbitzu guztietan gertatzen da. Enpresa pribatuek kudeatzen dituzten zerbitzu publiko estrukturalek interes bakarra dute: negozioa, zerbitzuaren kalitatea eta langileen lan-baldintzak alde batera utzita. Horregatik, zerbitzu publikoen zuzeneko kudeaketa aldarrikatzen dugu. Horretarako borondate politikoa besterik ez da behar.

Hori dela-eta, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio aldizkako bilerak egin ditzala eraikin publikoetako garbiketa-zerbitzuko langileen

calidad del servicio. Lo que nos lleva a preguntarnos ¿cómo verifica el gobierno municipal que el servicio que se presta responde a lo firmado en el contrato?.

Respecto a las condiciones laborales de las trabajadoras, hay que recordar también que el Pleno de marzo de 2022 aprobó mejorar los espacios en los que las trabajadoras se cambian, algo que a día de hoy sigue sin solución, y que supone que muy frecuentemente tengan que utilizar el cuarto del material de limpieza para hacerlo sin ningún tipo de condiciones mínimas.

En definitiva, un trabajo de cuidados esencial como es la limpieza de escuelas o haureskolas en los que niños y niñas donostiarras pasan muchas horas, se minusvaloriza por la vía de la precarización de las condiciones laborales de las mujeres trabajadoras que los prestan, quienes, a pesar de todo, los realizan con total profesionalidad.

Esta situación no es excepcional, se reproduce en todos los servicios subcontratados por las administraciones públicas. Servicios públicos que son estructurales gestionados por empresas privadas cuyo único interés es el negocio, ni la calidad del servicio, ni las condiciones laborales de los y las trabajadoras. Por eso, reivindicamos la gestión directa de los servicios públicos. Es cuestión de voluntad política.

Por todo ello presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a establecer reuniones periódicas con la

ordezkariekin, zerbitzuaren baldintza agirien balizko ez-betetzeak eta enpresaren legezko betebeharrak baloratzeko, kontratuaren garapenaren eta, ondorioz, zerbitzuaren betetzearen zuzeneko jarraipena egiteko.

representación de las trabajadoras del servicio de limpieza de edificios municipales (Lote II), al objeto de valorar posibles incumplimientos del pliego del servicio, así como de las obligaciones legales de la empresa, y hacer un seguimiento correcto del desarrollo del contrato y con ello del cumplimiento del servicio.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio eskura dituen legezko aukera guztiak azter ditzala, udal-eraikinak garbitzeko enpresa adjudikaziodunak (II. lotea) lan bera egiteagatik langileei soldata-eskala bikoitza aplika ez diezaien.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a estudiar todas las posibilidades legales a su alcance para impedir que la empresa adjudicataria de la limpieza de edificios municipales (Lote II), aplique una doble escala salarial a las trabajadoras por realizar el mismo trabajo.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio enpresa adjudikaziodunari eska diezaiola udal eraikinak garbitzeko kontratua osorik bete dezala (II. lotea), beharrezkoa balitz aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuz.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a exigir a la empresa adjudicataria el cumplimiento íntegro del contrato de limpieza de edificios municipales (Lote II), aplicando el régimen sancionador previsto si fuera necesario.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio enpresa publiko bat sor dezala, kontratuak amaitu ahala azpikontratatutako zerbitzuak zuzenean kudeatzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a crear una empresa pública para gestionar directamente los servicios subcontratados a medida que venzan los contratos.

Donostia, 2023ko azaroaren 17a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia"

Donostia, a 17 de noviembre de 2023

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izaguirre Hortelano jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Ana Lopez Loiarte andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as D. Juan Karlos Izaguirre Hortelano, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Ana López Loiarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**AHO BATEZ.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**UNANIMIDAD.** |

**1. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**AHO BATEZ.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**UNANIMIDAD.** |

**1. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 1:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**ONARTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 3 - PP**<br>**ABSTENTZIOAK: 0** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**APROBADO.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 3 - PP**<br>**ABSTENCIONES: 0** |

**3. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Hiriko zuhaitzen kimatzeari buruzkoa.**

“Itziar Iturri Arrazola EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostian 25 parke eta lorategi eder ditugu. Parke eta lorategi horiez gain, hirian zehar hainbat “baso txiki” ditugu (adibidez, Bera Berako Hegaztien pasealekuan dagoena edo Añorga Txikiko ipar aldean dagoena). Eta baso txiki horiez gain, badaude hirian ez parke, ez lorategi, ezta “baso txiki” ere esan ezin zaien guneak; gune berde txikiak, non zuhaitzak dauden.

Parke eta lorategietatik kanpo dauden zuhaitz horietako asko beren kabuz sortu eta garatu dira, inongo zainketarik eta kontrolik gabe. Batzuek 30 urtetik gora dituzte eta badaude 35 metrotik gora

**II.2.2. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU sobre la poda de Árboles Urbanos.**

“Itziar Iturri Arrazola, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación presentada ante la Comisión de Espacios Públicos el pasado 13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

San Sebastián cuenta con 25 bellos parques y jardines. Además, a lo largo de la ciudad se encuentran varios "pequeños bosques" (por ejemplo, el situado en el paseo de las Aves de Bera Bera o el situado en la zona norte de Añorga Txiki). Asimismo, existen otros espacios que no se pueden calificar como parques, jardines o "bosquetes", sino que son pequeñas zonas verdes con árboles.

Muchos de estos árboles, que se encuentran fuera de los parques y los jardines, se han creado y desarrollado de forma natural, sin ningún tipo de vigilancia y control. Algunos tienen más de 30

ere neurtzen dutenak. Etxebizitzetatik eta haurren jolastokietatik gertu daude eta egunen batean istripu larria gerta daiteke kontrol ezak jarraitzen badu.

años, y también hay algunos que miden más de 35 metros de altura. Se encuentran cerca de algunas viviendas y patios infantiles y, si persiste esta falta de control, algún día puede ocurrir un accidente grave.

Bestalde, egunero jasotzen dira herritarren kexak zuhaitzak eta zuhaixkak ez inausteari buruz, etxebizitzetako leihoetara iristen diren adarrei buruz, zuhaixkek inbaditutako bidegorriei buruz, zuhaitzek inguratu dituztelako argitzen ez duten farolei buruz...

Por otro lado, diariamente se reciben quejas ciudadanas sobre la falta de poda de árboles y arbustos; sobre las ramas que llegan hasta las ventanas de las viviendas, sobre los bidegorris invadidos por arbustos, sobre las farolas que no iluminan por haber quedado ocultas por los árboles, étc.

Udal Gobernua Zuhaitzen Plan Zuzentzailea garatzen ari da, baina udaberrira arte ez da gauzatuta egongo. Eta inausketa lana, ordea, udaberria baino lehen egin beharra dago.

El Gobierno Municipal está elaborando el Plan Director de Arbolado, pero no estará finalizado hasta la primavera. Sin embargo, la poda debe realizarse antes de dicha estación.

Artean, kasu batzuetan, auzo elkarteak berak ari dira espaloiak eta bide gorriak garbitzen, udal teknikariek markatutako zuhaitz batzuk erori dira jada, azken haizeteen kasuan zuhaitz batzuk zartatu eta adar ugari erori dira...

Mientras tanto, en algunos casos, son las propias asociaciones vecinales las que están limpiando las aceras y los bidegorris. Además, han caído ya algunos árboles marcados por personal técnico municipal, los últimos vendavales han quebrado árboles y han caído muchas ramas, étc.

Batzordean, Udal Gobernuak ez zuen konpromiso garbirik agertu arazo horiek konpontzeko berehalako neurriak hartzeko.

En la citada comisión, el Gobierno municipal no mostró un compromiso claro de adoptar medidas inmediatas para solventar estos problemas.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, inausketa denboraldia hastera doanez, parke eta lorategiez haratago dauden zuhaitzak eta zuhaixkak egoki mantentze aldera, eskura dituen baliabideak inausketa lanetara bideratzeko (edo behar izan ezkero kaltetutako zuhaitzak kentzeko), Donostiako gune berdeak behar den bezala mantentzeko eta arriskuak saihesteko helburuz.

- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, ante el próximo comienzo de la temporada de poda, y con el fin de mantener adecuadamente los árboles y arbustos situados fuera de los parques y jardines, destine los recursos disponibles a las labores de poda (o en su caso a la retirada de los árboles dañados), a fin de mantener adecuadamente las zonas verdes de Donostia y evitar posibles

riesgos.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Itziar Iturri Arrazola
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Itziar Iturri Arrazola
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Carlos Garcia Hernandez jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Víctor Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas y D. Carlos García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, mugikortasun jasangarriko proiektuari buruzkoa, hiriko motordun trafikoko eremuak gutxienez hilean behin askatzeari buruzkoa ("autorik gabeko igandeak").**

"Victor Lasa jaunak, Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoko 98. artikulua oinarritzat hartuta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Olatz Yarzari, MUGIKORTASUN JASANGARRIKO PROIEKTU BATI BURUZKOA, GUTXIENEZ HILEAN BEHIN HIRIAN ZIRKULAZIO MOTORIZATURIK GABEKO EREMUAK EZARTZEKO(«AUTORIK GABEKO IGANDEAK») , hain zuzen ere GUNE

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al proyecto de movilidad sostenible para liberar zonas de la ciudad de tráfico motorizado al menos una vez al mes ("domingos sin coche").**

"Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la INTERPELACIÓN a la Concejala Delegada de Movilidad, Sra. Olatz Yarza, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS, relativa al PROYECTO DE MOVILIDAD SOSTENIBLE PARA LIBERAR ZONAS DE LA CIUDAD DE TRÁFICO MOTORIZADO AL

PUBLIKOETAKO BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) horri buruzko INTERPELAZIO bat aurkeztu ostean.

JUSTIFIKAZIOA

Azken aste eta hilabeteetan egiaztatu da zaila dela hirian isuri gutxiko eremu bat garatzea. Hein batean, gure mugikortasuna aldatzen duten aldaketa garrantzitsuen aurkako erresistentzia naturalean datza zailtasun horrek. Egia esan, gure mugikortasunaren aldaketak aldaketa kulturala egitea ere eskatzen du. Era berean, kultura-aldaketa erraztu egin daiteke ohiturak aldatuz gero.

Europako hiri askotan, mugikortasunaren ohitura- eta kultura-aldaketa hori «autorik gabeko igandeei» esker lortu zen. Hilean behin, hiriko kale nagusiak motordun trafikorako itxita egoten dira, eta oinezkoek eta txirrindulariek soilik erabil ditzakete. Horrela, herritarrek mugitzeko modu berriak esperimentatu ditzakete, ibilgailu motordunen trafikoari lotutako presiorik eta arriskurik gabe.

Era berean, onura nabarmenak ditu ingurumenean, ingurumen- eta soinu-kutsadura murrizten baitu, eta horrek zuzenean osasun publikorako onurak sortzen ditu. Zuzeneko onura ekonomikoak ditu, hala nola tokiko merkataritza areagotzea, baita zeharkakoak ere, hala nola, dirua aurreztea, petrolioaren kontsumoa % 3 eta % 5 artean murriztuz, eta azpiegitura grisa mantentzeko kostua ere murriztea. Ingurumen- eta osasun-aldagaiak hobetzeak ere aurrezki handiak sortzen ditu finantza publikoetan.

Autorik gabeko lehen egunak 1970eko hamarkadan hasi ziren ospatzen, 1973ko

MENOS UNA VEZ AL MES (“DOMINGOS SIN COCHE”).

JUSTIFICACIÓN

En las últimas semanas y meses se ha constatado la dificultad de desarrollar la Zona de Bajas Emisiones en la ciudad. Parte de esta dificultad radica en la natural resistencia hacia cambios de mucho calado como los que suponen la alteración de nuestra movilidad. En realidad, el cambio en nuestra movilidad requiere también de un cambio cultural que lo facilite. A su vez, el cambio cultural se puede facilitar con un cambio de hábitos.

En muchas ciudades europeas este cambio de hábitos y cultura en la movilidad se produjo gracias a iniciativas como los “domingos sin coche.” Una vez al mes, las principales calles de cada barrio son cerradas al tráfico motorizado y prestadas exclusivamente a peatones y ciclistas. De esta forma, la ciudadanía puede experimentar nuevas modos de movilidad sin la presión y riesgo asociadas al tráfico de vehículos a motor.

También tiene beneficios obvios en el medioambiente, al reducir al contaminación ambiental y acústica, que reportan beneficios a la salud pública en una directa correlación. Tiene beneficios económicos directos, como el aumento del comercio local, e indirectos en forma de ahorro, reduciendo el consumo de petróleo entre el 3% y 5%, y el coste de mantenimiento de la infraestructura gris. La mejora de las variables medioambientales y sanitarias suponen también ahorros importantes para las arcas públicas.

Los primeros días sin coche empezaron a celebrarse en los 70, a partir de la crisis

petrolio-krisitik aurrera. Orduan, Europako 10 herrialdek erabaki zuten aldian-aldian igandeak autorik gabe egitea, petrolioaren erabilera mugatzeko beste neurri bat bezala.

petrolera de 1973. Entonces, hasta 10 países europeos decidieron introducir regularmente domingos sin coche, como una medida más de racionamiento del petróleo.

Historikoki, horrelako neurriek ospe handia izan dute aplikatu diren hirietako herritarren artean. Adibidez, Clean Cities kanpaina: Londres, Bartzelona, Paris, Brusela edo Varsovia bezalako hiriak ohiko trafikoaren ordez oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoa jartzeko ekimenak aplikatzera bultzatu zituena. Egindako inkesten arabera, herritarren % 62 ekimen horren alde zegoen.

Históricamente, este tipo de medidas han gozado de gran popularidad entre la ciudadanía de las ciudades donde se han aplicado. Valga como ejemplo la campaña Clean Cities, que llevó a ciudades como Londres, Barcelona, Paris, Bruselas o Varsovia a aplicar iniciativas para sustituir puntualmente el tráfico habitual por peatones, bicis y transporte público. Según las encuestas realizadas, hasta el 62% de la población apoyaba tal iniciativa.

Espazio publikoak berreskuratzea ezinbesteko tresna da hiria egiteko, ekonomian, kulturan eta ingurumenean ondorio biderkatzaileak dituzten herritarren arteko sare organikoak areagotzen baititu. Herritarrek protagonismo-sentsazioa berreskuratzen dute, eta, epe labur, ertain eta luzean, hiriaren garapenean duten inplikazioak gora egiten du. Onura bereziki garrantzitsua da hiriko haurren artean.

La recuperación de espacios públicos es una herramienta imprescindible para hacer ciudad, incrementando las redes orgánicas que tienen efectos multiplicadores en la economía, cultura y medioambiente. La ciudadanía recupera una sensación de protagonismo que, a corto, medio y largo plazo, resulta en un aumento de su implicación en el desarrollo de su ciudad y, por tanto, de su cultura y estilo de vida. Se trata de un beneficio especialmente relevante entre las niñas y niños de la ciudad.

Ekimen hori baliagarria izan daiteke Mugikortasun Zuzendaritzarentzat ere, oinezkoentzako guneetan lehentasuna duten eremuak identifikatzeko, eta aldi baterako oinezko eremuak jarri eta horiek nola funtzionatzen duten aztertzeko. Aukera ematen da, adibidez, hiriko eskolen inguruan aldi baterako oinezkoentzako guneak jartzeko.

Esta iniciativa también puede ser útil para el departamento de movilidad a la hora de identificar zonas prioritarias en la peatonalización, dando pie a peatonalizaciones temporales reversibles para estudiar su funcionamiento. Se abre la oportunidad, por ejemplo, de iniciar peatonalizaciones temporales alrededor de los colegios de la ciudad.

Horrela, herritarrak pixkanaka mugikortasun-aldaketetara ohitzen dira, eta oinezkoek eta txirrindulariek gero eta protagonismo handiagoa lortzen dute. Gainera, aldi baterako oinezkoentzako gune horiekin batera, kaleak ere basoberritu daitezke, landare eta zuhaitz txikien

De esta manera, la ciudadanía se acostumbra gradualmente a cambios en la movilidad que van haciendo cada vez más protagonistas a las y los peatones y ciclistas. Además, estas peatonalizaciones temporales pueden ir acompañados también de reforestaciones de las

kopurua handituz.

calles, aumentando el número de plantas y pequeños árboles.

Horrelako ekimenen dimentsio anitzeko onurak erabat egiaztatuta daude, eta sobera gainditzen dituzte sortzen dituzten kostuak (VanHoose et al. 2022).

Los beneficios multidimensionales de estos ejercicios están plenamente comprobados, y superan sobradamente los costes asociados (VanHoose et al. 2022).

Estrategia hirigunean has liteke, hilean behin, igandean, eta aurrerago hiri osoan zehar apurka-apurka txandakatuz joan, gainerako auzoetan ere «autorik gabeko igandea» ekimenaz goza ahal izan dezaten. Esperientzia horrek, halaber, isuri gutxiko eremuaren simulazioak egiten hasteko aukera emango luke, eta horrela, zein aukerek hobekien funtzionatzen duten ebaluatzeko. Igandetan egiten denean, eta herritarrei aldez aurretik jakinarazita, herritarrak gero eta ohituago egongo dira eta inpaktua txikiagoa da.

La estrategia podría iniciarse en la zona Centro de la ciudad, un domingo al mes, para paulatinamente ir rotando por toda la ciudad, permitiendo que el resto de barrios también disfruten de su “domingo sin coches.” Esta experiencia también permitiría iniciar simulaciones de la Zona de Bajas Emisiones, para evaluar qué alternativas funcionan mejor. Al hacerlo en domingo y con previo aviso a la ciudadanía, que gradualmente estará cada vez más acostumbrada, el impacto es menor.

Igande horietan garraio publikoa egokitu liteke, maiztasuna areagotuz eta geralekuak hesitutako eremuaren inguruan birkokatuz, desfileetan edo kirol-ekitaldiak antolatzen direnean egiten den modu berean. Gure mugikortasunean guztiok behar dugun aldaketa erraztea izan behar da erakundeen helburua.

Para estas ocasiones, podría adaptarse el transporte público, aumentado su frecuencia y recolocando las paradas alrededor de la zona acordonada, como ocurre con ocasión de eventos públicos como desfiles o competiciones deportivas. Se trata de facilitar desde las instituciones el cambio que todos necesitamos en nuestra movilidad.

Hori guztia dela eta, aurkezten dugu kontrol-mozio hau:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio gutxienez hilean behin hirian motordun trafikorik gabeko eremuak ezartzeko ekimena sor dezala «autorik gabeko igandeak» ekimena izenez ere ezaguna, 2024ko bigarren hiruhilekoa baino lehen.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio pixkanaka aldi

Por ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a generar la iniciativa para liberar la ciudad de tráfico motor al menos una vez al mes, creando los “domingos sin coche”, antes del segundo trimestre de 2024.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno

baterako oinezkoentzako behin-behineko ekimenak txertatzeko hiri osoan zehar 2024ko bigarren hiruhilekoa baino lehen, herritarrei, garraio publikoari eta kaleko negozioei aldaketa mota horietara pixkanaka egokitzeko aukera emanez.

Donostia, 2023ko azaroaren 20a

Victor Lasa,
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea.”.

Municipal a introducir paulatinamente ejercicios de peatonalización temporal y reversible por toda la ciudad, permitiendo que ciudadanía, transporte público y negocios a pie de calle puedan adaptarse paulatinamente a este tipo de cambios, antes del segundo trimestre de 2024.

Donostia, a 20 de noviembre de 2023

Dr Victor Lasa
Portavoz de Elkarrekin Donosti”.

Eztabaida hasita, Victor Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Víctor Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako kaleetako argiztapen faltari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 94. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de iluminación en las calles de San Sebastián.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Donostiako kaleetan argi falta izatea dela eta Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Farola altuak eta zuhaitz hostozabalak izatea ez dira laguntzaile onak gure kaleetan behar adina argi izateko gauez. Hala, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Ategorrieta, Intxaurrondo Zaharra, Ulia eta Mirakruz gainaz galdetu genuen guk; baina hiriko beste auzo batzuetan ere gertatzen da arazo hori, eta jende askok adierazten du argi eskasia horrek segurtasun falta eragiten diola kalean ibiltzekoan.

Guk uste dugu Donostian diren farola asko eta asko inguratzen dituzten zuhaitzak kimatu eta kaleetan argitasun handiagoa izatea funtsezkoa dela herritarren segurtasuna hobetzeko. Gaur egun den argitasun eskasiak, segurtasun falta den irudipena izatea ekartzen du, gauez ibiltzeari eragiten dio eta bizilagunentzat biziro atseginak ez diren lekuak sortzen ditu.

Kaleak gauez egoki argiztatuta izateak mesede asko dakartza herritarrentzat: ikusgarritasuna hobetzea, orientazioa erraztea eta, denentan garrantzitsuena, segurtasun publikoari laguntzea. Gainera, argiztapen egokiak gaueko bizimodua eta komunitate izatea ere sustatu dezake, kalealde atseginagoak eta seguruagoak sortuta denentzat.

Argitasun handiagoa izateak ingurune seguruago eta erosoagoa emango die bizilagunei eta bisitariei, eta komunitatean kalitate handiagoz

siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de iluminación en las calles de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Farolas altas y árboles muy frondosos no son una buen combinación para conseguir una correcta iluminación nocturna en nuestras calles. En la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos les preguntamos sobre las zonas de Ategorrieta, Intxaurrondo Viejo, Ulía y Alto de Miracruz, pero esto ocurre en otros barrios de la ciudad, y son muchas las personas que aseguran que esta falta de luz les genera inseguridad cuando andan por las calles.

Creemos que incrementar la luminosidad en las calles de San Sebastián, podando los árboles que rodean muchas de las farolas de nuestra ciudad, es crucial para mejorar la seguridad ciudadana. La falta de iluminación actual contribuye a una sensación de inseguridad, afecta a la movilidad nocturna y propicia entornos poco amables para vecinos y vecinas.

La correcta iluminación en las calles durante la noche beneficia a los ciudadanos de diversas maneras: mejora la visibilidad, facilita la orientación y, lo que es más importante, contribuye a la seguridad pública. Además, una iluminación adecuada puede fomentar la vida nocturna y promover un sentido de comunidad, creando entornos urbanos más agradables y seguros para todos.

Un aumento en la luminosidad brindará a los residentes y visitantes un entorno más seguro y acogedor, promoviendo la calidad de vida en

bizitzen lagundu ere bai.

Garrantzitsua iruditzen zaigun beste gauza bat kalealdean argi gutxi izateak arratoiak izateko arazoa larritzea da. Iluntasunak, izan ere, egoera aproposa ematen die halakoei, eta zailagoa da antzematea eta kontrolatzea. Gure kaleetako argitasuna handitzeak eta hobetzeak, pertsonen segurtasuna hobetu ez eze, murriztu egingo du arratoientzako habitat egokia izatea.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio kimatzeko gure hirian farolak inguratuz diren zuhaitz guztiak, behar adina argi izateko Donostiako kaleetan hartara.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio jarrita diren farolen orientazioa berriz begiratzeko, eta bermatzeko eman dezaketen argiztapen guztia ematea haiek.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio LED argiak jartzeko hiriko farola guztietan.

4. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio farolak mugimendu-sentsorez hornitzeko proiektu pilotu bat abian jartzeko, oinezkoak antzematzen dituztenean argitasuna handitzeko farolek.

Donostia, 2023ko azaroaren 16a

Borja Corominas Fisas,

la comunidad.

Otro hecho que consideramos relevante es que la falta de iluminación en áreas urbanas agrava el problema de la presencia de roedores. La oscuridad proporciona un entorno propicio para su actividad nocturna, dificultando la detección y control. Incrementar y mejorar la iluminación en nuestras calles, no solo mejora la seguridad humana, sino que también reducirá el hábitat favorable para los roedores.

Por estos motivos, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a que proceda a podar todos los árboles que rodean las farolas de nuestra ciudad para contribuir así a una correcta iluminación de las calles de San Sebastián.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a revisar la orientación de las farolas ya existentes y asegurar que se maximice la iluminación.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a instalar alumbrado LED en todas las farolas de la ciudad.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a Iniciar un proyecto piloto de farolas con sensor de movimiento que incrementen la luminosidad cuando detecten peatones.

En San Sebastián, a 16 de noviembre de 2023

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Carlos Garcia Hernandez jaunak eta Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Borja Corominas Fisas, D. Carlos García Hernández y D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Bera Berako 2. eta 3. faseetako obrei buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 94. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Bera Berako 2. eta 3. ekinaldiak direla eta Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Bera Bera auzoa, 1979ra arte Bidebieta 2 izenez ezagutzen zena, 1970eko hamarkadan eraiki

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre obras de la Fase 2 y 3 de Bera Bera.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre obras de la Fase 2 y 3 de Bera Bera

JUSTIFICACIÓN

El barrio de Bera Bera, conocido hasta 1979 como Bidebieta 2, se construyó en la década de

zen. Garai hartarako, abangoardiako proiektu zen, eta ingurumena errespetatzen zuen arkitektura egin zen. Harrezkero, ordea, ez da ia batere inbertitu auzoa behar bezala kasu eginda edukitzen.

1970. Con un proyecto vanguardista para la época y con una arquitectura que respetaba el medio ambiente. Desde entonces apenas se ha invertido en el adecuado mantenimiento del barrio.

2022ko udan, Bera Bera berriz urbanizatzeko obren aurreneko ekinaldia egin zen, hockey zelaiaren inguruko perimetroarena. Harrezkero, han eta hemen galdetu izan diegu Obren zinegotzi arduradunei ea noiz egin behar ziren hurrengo 2 ekinaldiak. Esan ziguten 2023ko uda baino lehen hasiko zela 2. Fasea, baina oraindik ez dute ezer ere egin.

En el verano del 2022 se ejecutó la primera fase de la obras de reurbanización de Bera Bera, el perímetro alrededor del campo de hockey. Desde entonces hemos preguntado de manera informal, a los concejales responsables de obras, cuándo se iban a ejecutar las siguientes 2 fases. Se nos aseguró que la fase 2 se iba a iniciar antes del verano del 2023. Todavía no se ha hecho nada.

Hilaren 13an izandako Batzordean, Obren ardura duen zinegotziak erantzun zigun Loiolako kuartelak erosteko erabili dutela 2. ekinaldiko obrak egiteko zen aurrekontua. Horrela, bada, berriro ere muzin egin diote auzoa kasu eginda edukitzeari.

En la Comisión del pasado lunes 13 la concejala responsable de obras nos respondió que el presupuesto de la fase 2 se había destinado a la compra de los Cuarteles de Loiola, despreciando una vez más el mantenimiento del barrio.

Hori dela eta, hauxe da nire

Por este motivo, el abajo firmante, presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio 2024ko aurrekontuan sartzeko Bera Berako obren 2. eta 3. ekinaldiei heltzeko izan behar den aurrekontua.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio 2024an bukatzeko 2. eta 3. ekinaldietako obrak.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an.

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a incluir en el presupuesto del 2024 el presuspuesto necesario para acometer las fases 2 y 3 de las obras de Bera Bera.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a finalizar las Fases 2 y 3 de las obras durante el 2024.

En San Sebastián, a 17 de noviembre de 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D. Víctor Lasa Briz, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – (5) EH BILDU; (1) EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 – (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 - (5) EH BILDU; POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA, (1) EH BILDU.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, kalean janaria banatzeari buruzkoa.**

“Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 94. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du kalean janaria banatzearen inguruan, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Lau urte inguru dira Donostian bai Konstituzio Plazan, bai Egiako Kalkutako Teresa plazan, bai eta hiriko beste puntu batzuetan ere, kaleko egoeran eta muturreko zaurgarritasun-egoeran

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre el reparto de comida en la calle.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 94 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el reparto de comida en la calle.

JUSTIFICACIÓN

Desde hace alrededor de cuatro años se vienen repitiendo en San Sebastián, tanto en la Plaza de la Constitución como en la Plaza Teresa de Calcuta de Egia, y otros puntos de la ciudad,

dauden pertsonei legez kanpoko otorduak banatzen zaizkiela.

repartos ilegales de comida a personas en situación de calle y extrema vulnerabilidad.

Janari-banaketa horiek ez dituzte betetzen osasun-kontrolaren arloko araudi guztiak, eta ez dute Udalaren nahitaezko baimenik espazio publikoa okupatzeko, segurtasuneko zinegotzi ordezkariak azken batzordean adierazi zuenez. Legez kontrakoak dira, beraz.

Estos repartos incumplen todas las normativas en materia de control sanitario y no cuentan con los preceptivos permisos de ocupación de espacio público por parte del Ayuntamiento, según aseguró el concejal delegado de seguridad en la última comisión. Son, por lo tanto, ilegales.

Duela urte batzuetatik hona, etengabeko gatazkak sortzen ari dira janari eta afari horien hartzaileen artean. Borrokak etengabeak dira janaria lortzeko, eta horren ondorioz, arrisku handiko egoerak sortzen dira eremu horietako bizilagunentzat.

Desde hace años también, están generando constantes conflictos entre los propios receptores de esas comidas y cenas. Las peleas son continuas para hacerse con la comida y generan situaciones de enorme peligro también entre los vecinos.

Onartezina da Udalak hau onartzea: Donostian, jendea borrokan ibiltzea janaria lortzeko. Onartezina da beste aldera begiratzea pertsona horiek, askotan alkoholaren edo substantzia estupefazienteen eraginpean, inguruko saltokietan lapurtzen dutenean, bizilagunak mehatxatzen dituztenean edo haien artean oso oldarkor borrokatzen direnean. Onartezina da Udala gai ez izatea egoera ahulean dauden pertsonei otordu-zerbitzu bat eskaintzeko, dauden bizi-prozesuan laguntzeko eta gizarteratzeko tresnak eskaintzeko.

Es inaceptable que el Ayuntamiento permita que en el término municipal de Donostia haya gente peleándose por comida. Es inaceptable que se mire hacia otro lado cuando esas personas, muchas veces bajo los efectos del alcohol o sustancias estupefacientes, roban en los comercios cercanos, amenazan a los vecinos o se pelean de manera muy agresiva entre ellos. Es inaceptable que el Ayuntamiento no sea capaz de ofrecer un servicio de comidas a personas en estado de vulnerabilidad, acompañarlas en el trance vital en el que están y ofrecerles herramientas para su completa y efectiva reinserción social.

Hori dela-eta, honako mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

Por estos motivos, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio kalean janaria banatzea debeka dezala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno Gobierno a prohibir el reparto ilegal de comida en las calles de San Sebastián.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari

2. El Pleno del Ayuntamiento de San

eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala Donostiako kaleetan legez kanpoko janari-banaketen arduradunak zehatzeko, elikagai-manipulatzaileei buruzko arauak eta haien zehapen-araubidea ezartzen dituen otsailaren 11ko 202/2000 Errege Dekretuaren 8. artikuluaren arabera.

Sebastián insta al equipo de gobierno a tomar las medidas necesarias para que los responsables de los repartos ilegales de comida en las calles de San Sebastián sean sancionados conforme al artículo 8 del Real Decreto 202/2000, de 11 de febrero, por el que se establecen las normas relativas a los manipuladores de alimentos y su régimen sancionador.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala Donostiako kaleetan legez kanpoko janari-banaketen arduradunak zehatzeko jabari eta erabilera publikoko espazioen okupazioak arautzen dituen udal-ordenantzaren hirugarren tituluaren arabera.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a tomar las medidas necesarias para que los responsables de los repartos ilegales de comida en las calles de San Sebastián sean sancionados conforme al título tercero de la ordenanza de municipal reguladora de las ocupaciones en los espacios de dominio y uso público.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio harrera- eta elikadura-zerbitzu bat eskain diezaiela egoera zaurgarrian dauden pertsonei, enplegurako prestakuntzaren bidez gizarteratzeko benetako konpromisoaren truke.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a ofrecer un servicio de acogida y alimentación a aquellas personas en situación de vulnerabilidad a cambio de un compromiso cierto de reinserción social a través de la formación para el empleo.

Donostia, 2023ko azaroaren 16a

En San Sebastián, a 16 de noviembre de 2023

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularreko bozeramailea."

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Borja Corominas Fisas, D.ª Arantza González García, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, donostiarrak etxean zainduak izateko zerbitzuen ingurukoa.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azaroaren 15ean, Jaurlaritzak zainketen aldeko euskal ituna eraikitzea helburu zuen kongresua antolatu zuen Tabakaleran. Bertan, Donostiako alkateak bere Gobernu Programan ere jasotzen den esaldi bat nabarmendu zuen: Donostia ongizate ereduagatik erreferente izan nahi duela, etxean hobeto zainduak izateko estrategia bat garatuz. Horretarako, etxez etxeko laguntza zerbitzuak duen garrantziari erreferentzia egin zitzaion kongresuan, hainbat ordezkari politikoren aldetik.

Hain zuzen ere, azaroko batzordeetan, zerbitzu honen inguruan interpelatu genuen delegatua, azkeneko urteetan izan duen tendentzia dela eta. Gizarte-ekintzaren memoriak aztertzen baditugu,

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los servicios para que los donostiarras sean atendidos en casa.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado 13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

El 15 de noviembre, el Gobierno organizó en Tabakalera un congreso para construir un pacto vasco por los cuidados. En ella, el alcalde donostiarra destacó una frase que también se recoge en su Programa de Gobierno: que San Sebastián sea referente por su modelo de bienestar, desarrollando una estrategia para una mejor atención en el hogar. Para ello, en el congreso se hizo referencia a la importancia del Servicio de Ayuda Domiciliaria por parte de diferentes representantes políticos.

Precisamente, en las comisiones de noviembre interpelamos a la delegada en torno a este servicio, vista la tendencia de los últimos años. Si analizamos las memorias de Acción Social,

etxez etxeko laguntza zerbitzuan lan egiten dutenen pertzeptzioa konfirmatu daiteke: gero eta erabiltzaile gehiago ditu zerbitzuak, baina arreta orduak beherantz doaz. Datu esanguratsua da zerbitzurako aurreikusitako 2023ko aurrekontutik (10.040.717 euro) azkenean 8.787.980,71 euro erabiliko direla.

podemos confirmar la percepción de las personas que trabajan en el Servicio de Ayuda Domiciliaria: cada vez hay más personas usuarias en el servicio, pero el número de horas de atención van disminuyendo. Un dato significativo es que del presupuesto previsto para el servicio en 2023 (10.040.717 euros), finalmente se destinarán 8.787.980,71 euros.

Joera horrek auxiliarren lan karga handitzea dakar (funtzio asko egin behar dituzte etxe bakoitzean minutu gutxitan) eta eragin negatiboa du zerbitzuaren egonkortasunean.

Esta tendencia supone un aumento de la carga de trabajo por hora de las personas auxiliares (que en unos pocos minutos realizan muchas funciones en cada hogar) y repercute negativamente en la estabilidad del servicio.

| Urtea | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Erabiltzaileak | 1.927 etxe | 1.826 | 1.901 | 1.788 |
| Arreta orduak | 401.674 | 424.386,35 | 433.619,80 | 458.035,50 |

| Año | 2022 | 2021 | 2020 | 2019 |
|---|---|---|---|---|
| Personas usuarias | 1.927 hogares | 1.826 | 1.901 | 1.788 |
| Número de horas de atención | 401.674 | 424.386,35 | 433.619,80 | 458.035,50 |

Udalak eta enpresak 2022-2023an zerbitzuaren inguruan egindako azterketatik eta delegatuak berak batzordean emandako datuetatik honako hau ondorioztatu daiteke:

Del análisis del servicio realizado tanto por el Ayuntamiento y como por la empresa en 2022-2023 y de los datos facilitados por la propia concejala delegada en el seno de la Comisión se desprende lo siguiente:

- Zerbitzua, soilik, aldi baterako eta urgentziaz erabiltzen duten erabiltzaileen kopurua handitu egin da; alegia, zerbitzua laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa lortu arte edo kontratatutako langile finkoaren opor-jaiegunak estaltzeko erabiltzen dutenen kopurua. Horren seinale da erabiltzaileen %50ek 10 hilabete baino gutxiago mantentzen dutela zerbitzua.

- se ha incrementado el número de personas usuarias que utilizan el servicio exclusivamente de forma temporal y urgente hasta obtener la prestación económica de asistencia personal o para cubrir los periodos de vacaciones del personal fijo que tienen contratado. Prueba de ello es que el 50 % de las personas usuarias mantienen el servicio durante menos de 10 meses.

• Zerbitzua kontratatua duten etxeean %13,54tan 30 minutuko arreta egiten da eta aldaketa asko izaten dira auxiliarren lanaldian, astean 12 ordu eskaseko kontratu mugagabeekin, eta horrek dakarren prekarietatearekin. Izan ere, 342 langile finkoetatik soilik 98 emakumek dute jardunaldi osoko kontratua; 103k behin-behienekoa dute eta, horietatik 28k, lanaldi osoko kontratua.

• En el 13,54 % de los hogares que tienen contratado el servicio se realiza una atención de 30 minutos, por ello, se producen muchos cambios en la jornada de las auxiliares. además, tienen contratos indefinidos de apenas 12 horas semanales, con la consiguiente precariedad que esto supone. De hecho, sólo 98 mujeres de 342 trabajadoras fijas tienen contrato a jornada completa, 103 tienen contrato eventual, y solo 28 de ellas a tiempo completo.

• Zerbitzuaren truke gehieneko ko-ordainketa egiten duten erabiltzaileen bajak ugaritu egin dira, merkatu pribatuan kontratatzen diren zaintza lanek merkeagoak izaten jarraitzen dutelako, zaintzaileen kalteetan. Nahiz eta askotan halakorik proposatu dugun, hiri-ekonomiako barometroak hiri-ekonomia merkataritza eta ostalaritzaren egoerari erreparatuz aztertzen jarraitzen du eta Udalak ez du zaintza sektorearen inguruko azterketarik. Ondorioz, ez dago daturik merkatu publiko zein pribatuaren arteko oreka bilatzeko, ezta planteamendurik ere etxez etxeko laguntza zerbitzua lehiakorragoa eta erakargarriagoa izateko. Esaterako, etxeko langileen errealitatea aztertzea garrantzitsua izango litzatege, etxez etxeko laguntzarekin eman daitezkeen talkak eta aukerak kontuan izateko.

• Se han incrementado las bajas de las personas usuarias que realizan el máximo copago por el servicio, ya que los cuidados contratados en el mercado privado siguen siendo más baratos en perjuicio de las personas cuidadoras. Aunque lo hemos propuesto en repetidas ocasiones, el barómetro de la economía urbana sigue analizando solamente la economía urbana según la situación del comercio y la hostelería, por lo que el Ayuntamiento no tiene tiene en cuenta ni realiza un análisis del sector de los cuidados. En consecuencia, no existen datos que busquen un equilibrio entre el mercado público y el privado, ni planteamientos que hagan más competitivo y atractivo el Servicio de Ayuda a Domicilio. Por ejemplo, sería importante analizar la realidad de las trabajadoras de hogar para tener en cuenta las posibles colisiones y oportunidades que se pueden dar con la Ayuda Domiciliaria.

Egia da, azkeneko bi urteetan Udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzua hobetzeko saiakera egin duela Udal Gobernuak, iraupen luzeko zaintzaren estrategiarekin, baina argi dago ez dela nahikoa. Alde batetik, estrategia hori etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaile bazuengan aplikatu da auzo jakin batzuetan (Egia, Gros eta Ekialdean) eta 342

Es cierto que en los dos últimos años, el Gobierno Municipal ha tratado de mejorar el Servicio de Ayuda a Domiciliaria, con una estrategia de cuidados de larga duración, pero es evidente que resulta insuficiente. Por un lado, esta estrategia se ha aplicado a las personas usuarias del Servicio de Ayuda Domiciliaria en determinados barrios (Egia,

auxiliarretatik 40rengan; hau da, ez da zerbitzua zabaldu. Eta bestetik, estrategia zerbitzuaren enpresa lizitatzaileak kudeatu du, oinarrizko gizarte zerbitzuetako gizarte langileen lan kargagatik ezin izan delako era zuzenean kudeatu, gizarte zerbitzu guneetara atentzio eredu berririk ekarri gabe. Era berean, ez da egin auzoz-auzoko hauskortasunaren eta mendekotasunaren mapeorik, zainketak nork behar dituen eta zein motatakoak izan behar diren baloratzeko.

Gros y Distrito Este) y a 40 de 342 auxiliares, es decir, el servicio no se ha ampliado. Por otro lado, la estrategia ha sido gestionada por la empresa licitadora del servicio, ya que la carga de trabajo de las trabajadoras sociales de los servicios sociales de base ha impedido su gestión directa, sin que se haya implementado un nuevo modelo de atención en los centros de servicios sociales. Tampoco se han realizado mapas de fragilidad y dependencia por barrios para valorar quién necesita cuidados y de qué tipo.

EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan jasotzen denez, beharrezkoa da zerbitzu hau sakon berrikustea, etxeko arretaren birplanteamendu orokor baten esparruan. Ondorioz, delegatuak batzordean emandako erantzuna -bere horretan mantentzen dugu eskaintza eta eskaera guztiak erantzuten dira– ez dator bat zaintza ereduak behar duen eraldaketa eta gogoeta prozesuarekin.

El II Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV recoge la necesidad de una revisión profunda de este servicio en el marco de un replanteamiento global de la atención domiciliaria. En consecuencia, la respuesta dada por la concejala delegada en comisión, –es decir, que mantenemos la oferta existente y se da respuesta a todas las demandas de servicio–, no se corresponde con el proceso de transformación y reflexión que requiere el modelo de cuidados.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruko azterketa bat egin dezala, zerbitzuaren kontratazioaren beheranzko tendentzia aztertzeko eta erabiltzaileak zerbitzuan 10 hilabete baino gehiagoz ez geratzeko arrazoiak aztertzeko, ondoren, 2019ko erregelamenduan zein prezio publikoan beharrezkoak diren hobekuntzak proposatzeko

1.- El pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un estudio sobre el Servicio de Ayuda Domiciliaria para analizar la tendencia a la baja de la contratación del servicio y los motivos por los que las personas usuarias no permanecen en el servicio más de 10 meses, para posteriormente proponer las mejoras necesarias tanto en el reglamento de 2019 como en el precio público.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San

Gobernuari Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuan lanean ari diren zaintzaileen inguruko genero ikuspegiko txostena egin dezala, haien lan-baldintzen azterketa egiteko eta behin-behinekotasunaren ondorioak aztertzeko.

Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un informe con perspectiva de género sobre las personas cuidadoras que trabajan en el Servicio de Ayuda Domiciliaria para realizar un análisis de sus condiciones laborales y las consecuencias de la temporalidad.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari datorren urteko hiri-ekonomiako barometroan, hiri-ekonomiaren atalean zaintza sektorearen inguruko azterketa egin dezala, gure hiriko ezaugarri demografikoen arabera sektore estrategikoa izan daitekeelako, eta etxeko zaintzaileen errealitatea kontuan hartu dezala azterketa horretan.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que en el Barómetro de Economía Urbana del próximo año, en el apartado de economía urbana, se realice un análisis del sector de los cuidados, que resultar estratégico en función de las características demográficas de nuestra ciudad, y tenga en cuenta la realidad de las personas cuidadoras en el hogar.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari iraupen luzeko zaintzen estrategia Etxez Etxeko Laguntzako auxiliar guztiei aplikatu diezaiela eta udal gizarte zerbitzu guneetan estrategia zuzenean garatzeko baliabide teknikoak eta profesionalak handitu ditzala.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que aplique la estrategia de cuidados de larga duración a todas las auxiliares de ayuda domiciliaria y aumente los recursos técnicos y profesionales para el desarrollo directo de la estrategia en los centros de servicios sociales municipales.

5.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari auzoz auzoko hauskortasunaren eta mendekotasunaren mapeoa egin dezala, zainketak nork behar dituen eta zein motatakoak izan behar diren baloratzeko.

5.- El Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un mapeo por barrios de la fragilidad y la dependencia para valorar quién necesita cuidados y de qué tipo.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

San Sebastián, 17 de noviembre de 2023

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Maria Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Maria Jesus Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**

GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**8. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

**8. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.
ABSTENCIONES: 0.

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, baliabide iraunkor eta berriztagarrietan oinarritutako energia ekoizpen eta kontsumo eredu berri**

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la aceleración de la transición hacia un nuevo modelo de producción y consumo energético basado en**

**bateranzko trantsizioa azkartzeari buruzkoa.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroko Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

“Neurri drastikoagoak behar dira, eta aldaketa azkartu beharra dago, Lurraren berotzea 1,5 gradura mugatzeko”. Hala ohartarazi du azaroaren 14an kaleratu den Ekintza Klimatikoaren Egoera txostenak, aurtengoak.

Klima krisiari aurre egiteko aldaketak motelegiak dira erabakigarriak diren sektore ia guztietan, hala nola, erregai fosilei, deforestazioari eta garraio publikoari begirako neurrietan. Energiari dagokionez, bestalde, txostenak dio eguzki eta haize bidezko energia ekoizpena urteko % 24 handitu behar dela (egungo hazkundea % 14koa baita). Txostenaren egileetako batek, Claire Fyson ikerlariak, zera adierazi du: “Zerbait ez dabil ondo. Energia garbien merkatuek gora egin dute, eta mundu osoko gobernuek ekin egin beharko liokete. Aldiz, diru publikoa erabiltzen dute iragan fosilari eusteko”.

Hilabete goiti lehenago, urriaren 4an, Cristina Enea Fundazioak eta Marisol Garmendia zinegotzi ordezkariak Donostiako Iraunkortasunaren eta Klimaren 2022ko Txostena aurkeztu zuten.

Marisol Garmendia pozik agertu zen aurkezpenean, eta adierazi zuen hiriak “maila ezin hobean” jarraitzen duela txostenak jasotako hainbat parametrotan, hala nola, atmosferarako emisioen murrizketan edo uraren eta airearen

**recursos sostenibles y renovables.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La presente moción deriva de la interpelación presentada en noviembre de 2023 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

«Se necesitan medidas más drásticas y acelerar el cambio para limitar el calentamiento de la Tierra a 1,5 grados». Así lo advierte el Informe de Situación de Acción Climática de este año, publicado el 14 de noviembre.

Los cambios para hacer frente a la crisis climática están siendo demasiado lentos en casi todos los sectores decisivos, como las medidas relativas a combustibles fósiles, deforestación y transporte público. Respecto a la energía, el informe señala que la producción de energía solar y eólica debe incrementarse un 24 % anual (frente al 14 % actual). Claire Fyson, una de las autoras del informe, señala lo siguiente: «Algo no va bien. Los mercados de energías limpias han aumentado y gobiernos de todo el mundo deberían poner en marcha mercados de este tipo. En cambio, utilizan dinero público para mantener el pasado fósil».

El pasado 4 de octubre la Fundación Cristina Enea y la concejala delegada Marisol Garmendia presentaron el Informe de Sostenibilidad y Clima 2022 de San Sebastián.

En cuanto a San Sebastián, Marisol Garmendia se mostró satisfecha en la presentación y manifestó que la ciudad sigue «en un nivel óptimo» en parámetros como la reducción de emisiones a la atmósfera o la calidad del agua y del aire recogidos

kalitatean. Kontua da, Larrialdi Klimatiko egoera honetan, eta azken ikerketek adierazten duten bezala, egiten dena egiten dela ere, gehiago egitera beharturik gaudela, baldin eta hamarkada honetarako jarri ditugun helburuak bete nahi baditugu.

Mozio honek DSS Klima 2050 planeko esku hartze estrategikoko esparru bati erantzun nahi dio, energia berriztagarriaren sorrera bultzatzeari, hain zuzen ere.

Donostiako Iraunkortasunaren eta Klimaren 2022ko Txostenaren arabera, 2019an nabarmen handitu zen energia berriztagarrien ekoizpen zenbatetsia, batez ere biomasako instalazioak areagotu zirelako, eta zehatzago, Txomin Eneko District Heating instalazioaren ekoizpena zela eta. Baina 2022an DH-en ekoizpenak behera egin du (% 23), 2.315.169 Wh-ra iritsiz. Gainera, Donostiako Sustapenaren eguzki-energia fotovoltaikoen instalazioek 647.435 kWh zenbatetsi ekoitzi dituzte 2022an, hau da, 2021ean baino % 16 gutxiago.

DSS Klima 2050 planean energia berriztagarriak bultzatzeko bi esku hartze nagusi jasotzen dira. Alde batetik, eskaera akuilatu behar da, horretarako “jatorri berriztagarria duen energia hornidura bermez kontratatuz eta iturri berriztagarrien sorrera, banaketa eta merkaturatzearen alde egingo duen Energia Zerbitzuen udal enpresa baten sorrera aintzatetsiz”; eta beste alde batetik, “iturri berriztagarri pribatuak eta autokontsumo banatua txertatzea sustatu eta bultzatuz”. Hala ere, txostenean ez dago proiektu horien garapenari buruz aipamen gehiago. Bai, ordea, 2023-2027 Gobernu Programan. “Donostia berdea-klimaren aldeko apustua” atalean, eta zehatz-mehatz energia-komunitateei buruzko puntuan, zera jasotzen da helburu bezala:

en el informe. Lo cierto es que, independientemente de lo que se haga en esta situación de Emergencia Climática, tal y como indican las últimas investigaciones, estamos obligados a hacer más si queremos cumplir los objetivos que hemos marcado para esta década.

Esta moción pretende dar respuesta a un marco de intervención estratégica del DSS Klima 2050, como es el impulso a la generación de energía renovable.

Según el Informe de Sostenibilidad y Clima 2022 de Donostia / San Sebastián, en 2019 se produjo un incremento significativo de la producción estimada de energías renovables debido principalmente al incremento de las instalaciones de biomasa y más concretamente a la producción de la planta District Heating de Txomin Enea. Sin embargo, en 2022 ha descendido la producción del District Heating (23 %) hasta alcanzar los 2.315.169 Wh. Además, las instalaciones de energía solar fotovoltaica de Fomento San Sebastián han producido 647.435 kWh estimados en 2022, un 16 % menos que en 2021.

El DSS Klima 2050 recoge dos intervenciones principales para el impulso de energías renovables. Por un lado, debe alentarse la demanda, «contratando con garantías el suministro de energía de origen renovable y reconociendo la creación de una empresa municipal de Servicios Energéticos que apueste por la generación, distribución y comercialización de fuentes renovables» y, por otro, «fomentando la incorporación de fuentes renovables privadas y el autoconsumo distribuido». No obstante, no hay más referencias en el informe sobre el desarrollo de estos proyectos. Pero sí en el Programa de Gobierno 2023-2027. En el apartado «San Sebastián verde-apuesta por el clima», y en concreto en el punto relativo a las comunidades energéticas, se recoge como objetivo: «Activar

“Etxeetan, komunitateetan eta eraikin publikoetan energia kudeaketa eraginkorra sustatzen eta errazten duten ekimenak, proiektuak eta laguntzak aktibatzea”.

Krisi ekologikoa azkartzen ari da eta klima aldaketaren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira. Horrek nahitaez egin beharreko trantsizio sozio-ekologikoa azkartzea premiatzen du. Eta aipagai dugun txostena irakurrita, bistakoa da Donostiak oraindik gabezia handiak dituela etorkizunari berme guztiekin aurre egin ahal izateko.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abian jar dezala donostiarrei autokontsumo energetikoari buruzko aholkularitza emateko energia bulegoa, herritarrei batez ere plangintzaren, hirigintzaren, legearen eta fiskalitatearen eremuetan laguntzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari energia elektrikoaren ekoizpenaren merkatuan bitartekaririk gabeko zuzeneko erosketa publikoa sustatzea eta legegintzaldia amaitu baino lehen udal energia-merkaturatzaile bat sortzeko beharrezkoak diren urratsak ematea.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia ”.

iniciativas, proyectos y ayudas que promuevan y faciliten una gestión energética eficiente en los hogares, comunidades y edificios públicos».

La crisis ecológica se está acelerando y los efectos del cambio climático son cada vez más evidentes. Ello obliga a acelerar la tan necesaria transición socioecológica. De la lectura de dicho informe resulta evidente que San Sebastián tiene aún importantes carencias para afrontar el futuro con plenas garantías.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a poner en marcha una oficina de energía que asesore a la ciudadanía donostiarra en materia de autoconsumo energético, con el fin de ayudarles, sobre todo, en los ámbitos de la planificación, el urbanismo, la fiscalidad y el ámbito jurídico.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a impulsar la compra pública directa sin intermediarios en el mercado de producción de energía eléctrica y a dar los pasos necesarios para la creación de un comercializador de energía municipal antes del final de la legislatura.

San Sebastián, 17 de noviembre de 2023

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
concejal del grupo municipal EH Bildu ”.

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Victor Lasa Briz jaunak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Víctor Lasa Briz, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D. Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal-gizarte zerbitzuetako**

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los psicólogos**

**psikologo komunitarioei buruzkoa.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Pertsonen Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Psikologo komunitarioek Haurren eta Familien Prebentzio Zerbitzuan egiten dute lan. Lantaldea Gizarte Zerbitzuetako Zentroetan banatuta dago, familiei arreta emateko bulegoa dute Gizarte Zerbitzutako Zentroetan eta Gizarte Ekintzako gainerako profesionalekin batera lan egiten dute. Gaur egun, HZ Gizekimenak enpresak kudeatzen du zerbitzua Udalak azpikontratatuta. 2022ko Gizarte Ekintzaren memoriako datuak kontuan izanda, 760 adingabe atenditu ziren iaz programa honetan.

Hogei urtean lan eredu jakin bat mantendu ostean, 2018ko ekainaz geroztik, Psikologo Komunitarioen taldeko hainbat profesional larriagoak ziren kasuak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak) artatzen hasi ziren plan pilotu gisa eta, 2021etik, kasu larri guztiak artatzen hasi ziren. Profesionalen hitzetan, horrek eragin handia izan du familietan eta langileengan. Hau da, ordura arte kasu arin eta moderatuen arduradun zen taldeak bere gain hartu zituen kasu larriak, eta, beraz, lan karga nabarmen handitu da. Bestetik, kasu larrien konplexutasuna eta lehentasunezko dedikazioa direla eta, lehen gainerako familiei ematen zitzaien arreta asko murriztu da.

**comunitarios de los servicios sociales municipales.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el pasado 13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Los psicólogos comunitarios trabajan en el Servicio de Prevención, Infancia y Familia. El equipo está distribuido en los centros de servicios sociales, cuentan con un despacho de atención a las familias en los centros de servicios sociales y trabajan conjuntamente con el resto de profesionales de Acción Social. Actualmente la empresa HZ Gizekimena gestiona el servicio subcontratado por el Ayuntamiento. Teniendo en cuenta los datos de la memoria de Acción Social de 2022, el pasado año se atendieron 760 menores en este programa.

Tras veinte años manteniendo un modelo de trabajo, a partir de junio de 2018, varios profesionales del equipo de psicólogos comunitarios comenzaron a atender casos más graves (competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa), a modo de plan piloto y a partir de 2021 comenzaron a atender todos los casos graves. Los profesionales señalan que esto ha afectado mucho tanto a las familias como a las personas trabajadoras. Es decir, el equipo hasta entonces responsable de casos leves y moderados ha asumido casos graves, por lo que la carga de trabajo está aumentando considerablemente. Por otro lado, la complejidad de los casos graves y la dedicación prioritaria han reducido notablemente la atención que se prestaba al resto de familias.

Lan baldintzen gorabeherak direla eta, profesionalek elkarrizketa bide bat irekitzea eskatu zioten enpresari, baina horrek uko egin ondoren, zazpi langilek prozesu judizial bat hasi zuten 2021ean, eta Udala zein enpresa salatu zituzten langileak legez kanpo lagatzeagatik.

Debido a las modificaciones de las condiciones laborales, los profesionales solicitaron a la empresa la apertura de una vía de diálogo, pero tras la renuncia por parte de esta última, siete miembros de la plantilla iniciaron un proceso judicial en 2021, denunciando tanto al Ayuntamiento como a la empresa por la cesión ilegal de trabajadores.

2023ko urriaren 27an Langile Batzordeak ezagutararazi duen bezala, auzitegiak Udala langileen legez kanpoko lagapena egiten ari zela aitortu du (orain arte bost profesionalari), eta, gainera, adierazi du artatutako familien gaineko erantzukizuna eta erabakiak administrazioko langileek egin behar dituztela, eta ezin dituztela azpikontratatutako enpresek gauzatu. Horregatik, epaiak Udalari eskatu dio salatzaileak langile publikoen baldintza eta eskubide berberekin kontrata ditzala. Horren aurrean, gobernu taldeak Auzitegi Gorenera jotzea erabaki du errekurtso bat aurkeztuz eta erantzunaren zain dago.

Tal y como ha hecho saber la Junta de Personal el 27 de octubre de 2023, el Tribunal reconoce que el Ayuntamiento estaba realizando una cesión ilegal de trabajadores (hasta ahora cinco profesionales) y que la responsabilidad y las decisiones sobre las familias atendidas deben ser realizadas por personal de la Administración y no pueden ser llevadas a cabo por empresas subcontratadas. Por ello, la sentencia insta al Ayuntamiento a que contrate a las personas denunciantes en las mismas condiciones y derechos que los empleados públicos. Ante ello, el equipo de gobierno ha decidido acudir al Tribunal Supremo presentando un recurso y está a la espera de respuesta.

Azaroko batzordeetan gaiaren inguruan Udal Gobernua interpelatu dugunean, ardura duen delegatuak adierazi digu ez daudela ados hasierako sententziarekin eta errekurtsoaren inguruko epaiaren zain daudela. Ez du azalpenik eman, ordea, psikologoko komunitarioekin bilerarik ez egitearen inguruan.

Cuando en las comisiones de noviembre interpelamos al Gobierno Municipal sobre el tema, la concejala delegada responsable nos indicó que estaban en desacuerdo con la sentencia inicial y que están a la espera de la sentencia relativa al recurso. Sin embargo, no aportó ninguna otra explicación sobre no haberse reunido con el equipo de psicólogos comunitarios.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari piskologo komunitarioen inguruan

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a retirar el recurso

Auzitegi Gorenari aurkeztutako errekurtsoa erretiratu dezala eta EAEko Auzitegi Nagusiak emandako sententzia bete dezala.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

interpuesto ante el Tribunal Supremo en relación con los psicólogos comunitarios y a cumplir la sentencia dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

San Sebastián, 17 de noviembre de 2023

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Jabier Vitoria Roma jaunak, Arantza Gonzalez García andreak, Vanessa Velez de Pablos andreak eta Maria Jesus Idoeta Madariaga andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Jabier Vitoria Roma, D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez de Pablos y D.ª María Jesús Idoeta Madariaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (5) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, mugikortasun bertikala dela eta.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre movilidad vertical.**

"Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, como consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Espacios Públicos el pasado

ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak Mugikortasun Bertikalari buruzko Plan Gidaria egin zuen 2017an. Bertan aipatzen denez, erreferentzia gisa, hainbat dokumentu erabiltzen dira; horien artean, Hiriko Mugikortasun Iraunkorraren 2008-2024 plana, orain berrikuspen lanetan dagoena eta berritu egingo dena.

Plan gidarian, azterketan aintzat hartutako eremuak aukeratzeko, azterketa objektibo bat burutu zen. Irizpide teknikoak eta zortzi adierazle baloratu ziren, eta horren arabera, elementu mekanikoak jartzeko aukera zuten 16 eremuko zerrenda osatu zen:

1. Berio
2. Aizkorri – Manuel Vázquez Montalbán
3. Lugaritz
4. Heriz pasealekua
5. Añorga Txiki
6. Mirakontxa
7. San Roke
8. Ulia
9. Egia
10. Loiola
11. Mirakruz gaina
12. Altza
13. Bera Bera
14. Intxaurrondo Zaharra
15. Zuatzu
16. Arriola - Pakea

Udal Gobernuari galdetuta, orain arte mugikortasun bertikala hobetzeko instalazioak eremu hauetan egin dira:

- Harizti Gaina
- Loiola
- Arrobieta plaza

13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de Donostia elaboró en 2017 el Plan Director de Movilidad Vertical. En él se menciona que se utilizan como referencia diversos documentos, entre ellos el Plan de Movilidad Urbana Sostenible 2008-2024, actualmente en fase de revisión, y que será renovado.

En el citado plan director se realizó un análisis objetivo para la selección de las áreas a considerar. Se valoraron los criterios técnicos, además de ocho indicadores, y, como consecuencia, se elaboró el listado de 16 zonas susceptibles de instalación de elementos mecánicos.

1. Berio
2. Aizkorri – Manuel Vázquez Montalbán
3. Lugaritz
4. Paseo de Heriz
5. Añorga Txiki
6. Miraconcha
7. San Roque
8. Ulia
9. Egia
10. Loiola
11. Alto de Miracruz
12. Altza
13. Bera Bera
14. Intxaurrondo Zaharra
15. Zuatzu
16. Arriola - Pakea

Consultado el Gobierno Municipal, hasta la fecha las instalaciones para la mejora de la movilidad vertical se han realizado en las siguientes zonas:

- Harizti Gaina
- Loiola
- Plaza de Harrobieta

- Bertsolari Txirrita
- Alaialde
- Easo 22
- Morlans
- Larratxo

Udal Gobernuak aurkeztu berri duen 2023-2027 Gobernu Programan, egungo Mugikortasun Bertikaleko plana berrikusi eta eguneratuko dela adierazi du eta, gainera, bi igogailu berri jarriko direla: bata Antiguan, Heriz pasealekuan, eta bestea Amaran, Autonomia kalearen eta Osasun Iturria kalearen artean. Heriz pasealekuko igogailuari dagokionez, zinegotzi ordezkariaren hitzetan, proiektua idatzia dago eta baliabide ekonomikoak eskuragarri dituzte eta lurzorua ere bai.

Bestalde, HAPOaren berrikuspen aurrerakinean, 32 eremu zerrendatu dira. 2017ko Mugikortasun Bertikalari buruzko Plan Gidariarekin alderatuta, HAPOaren zerrendan Añorga Txiki ez dagoela ikusi dugu, batetik, eta bestetik, eremu berriak gehitu direla. HAPOaren berrikuspen aurrerakinean azaltzen den zerrenda Mugikortasun Bertikaleko planean ezarritako irizpideetan aldaketak eginez osatu dela aipatzen da. Baina ez du adierazten zeintzuk diren aldaketa horiek.

Horri guztiari buruz interpelatu genuen batzordeetan. Irizpideei dagokienez, zinegotzi ordezkariak adierazi zuen ez dagoela argi HAPOaren zerrenda egiteko zein irizpide aldaketa egingo diren eta horiek erabiliko ote diren Mugikortasun Bertikaleko berrikuspen berrian.

Hortaz, agintaldi honetako Mugikortasun Bertikaleko plan zuzentzailearen berrikuspena dela eta, beldur gara orain arte identifikatuta dauden eremuekin zer gertatuko den, zein irizpide hartuko diren kontuan eta nola

- Bertsolari Txirrita
- Alaialde
- Easo 22
- Morlans
- Larratxo

En el Programa de Gobierno 2023-2027, presentado recientemente por el Gobierno Municipal, se señala que se revisará y actualizará el actual Plan de Movilidad Vertical, y que, además, se instalarán dos nuevos ascensores, uno en el Antiguo (Paseo de Heriz), y otro en Amara, entre la calle Autonomía y la calle de la Fuente de la Salud. En cuanto al ascensor del paseo de Heriz, el concejal delegado señala que el proyecto está redactado y que disponen de los recursos económicos y del suelo necesarios.

Por otra parte, en el Avance de la Revisión del PGOU, se enumeran 32 ámbitos, pero Añorga Txiki, que sí se contemplaba en el Plan Director de Movilidad Vertical de 2017, ha sido excluido, y, sin embargo, se han incorporado nuevos ámbitos. Se menciona que el listado que figura en el Avance de la Revisión del PGOU ha sido confeccionado modificando los criterios establecidos en el Plan de Movilidad Vertical, si bien no se indican cuáles son estas modificaciones.

Sobre todo esto interpelamos en las comisiones. En cuanto a los criterios, el concejal delegado señala que no queda claro cuáles se van a modificar para la elaboración del listado del PGOU y si van a ser utilizados en la nueva revisión de Movilidad Vertical.

Por tanto, la revisión del Plan Director de Movilidad Vertical de este mandato nos genera muchas dudas sobre qué ocurrirá con las áreas identificadas hasta ahora, qué criterios se tendrán en cuenta y cómo se integrarán las nuevas áreas

txertatuko diren HAPOaren berrikuspenaren aurrerakinean proposatzen diren eremu berriak Mugikortasun Bertikaleko plan zuzentzaile berrian.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Mugikortasun Bertikaleko plan zuzentzaile berria egin bitartean, 2017ko Mugikortasun Bertikalari buruzko Plan Gidariarekin lanean jarrai dezala eta eremuei dagokienez bertan agertzen den hurrenkera mantendu dezala.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Heriz pasealekuan jarri behar den igogailuaren lizitazioa lehenbailehen egin dezala, Heriz pasealekuko igogailua lehenbailehen jartzeko eta hurrengo proiektuekin jarraitu ahal izateko.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

que se proponen en el Avance de la Revisión del PGOU en el nuevo Plan Director de Movilidad Vertical.

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a seguir trabajando con el Plan Director de Movilidad Vertical de 2017 en tanto no se elabore un nuevo Plan Director de Movilidad Vertical, así como a mantener el orden de prelación de los ámbitos de actuación en él establecidos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que licite la instalación del ascensor del paseo de Heriz a la mayor brevedad posible, a fin de que, tras su instalación, poder continuar con los siguientes proyectos.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza Gonzalez García, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, indarrean dagoen hirigintza-araudian hautemandako arazoei buruzkoa, balkoi berriak eraikitzeko edo handitzeko eskaera jakin batzuei dagokienez.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDUko udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari, etxebizitza-eraikinetan balkoi berriak eraikitzeko edo handitzeko eskaera jakin batzuen inguruan indarrean dagoen hirigintza araudian atzemandako arazoari buruzkoa, Udalbatzan jorratzeko. Kontrol mozio hau 2023ko azaroaren 13an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

2021eko apirilaren 29an, ekainaren 24ko GAOn argitaratua, behin betiko onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntuala. Hirigintzako arau orokorrak.

Aipatutako Hirigintza Arau Orokorrak aldatzeko izapideak egin zirenean, «saldu» zen alderdi berritzaileenetako bat izan zen etxebizitza-eraikinetan balkoi berriak eraikitzea errazten zela aldaketa horiekin. Horrela, aipatutako araudiaren 31. artikuluan honako hau zehazten da: «Bizitegi-eraikinetan, hegalkin ireki horiek kalkulatzeko, etxebizitza-unitate bakoitzari

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la problemática detectada en la normativa urbanística vigente en relación a determinadas solicitudes de construcción de nuevos balcones o de ampliación de los mismos.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL a la concejala delegada de Urbanismo Sostenible, para su tratamiento en Pleno, sobre la problemática detectada en la normativa urbanística vigente en relación a determinadas solicitudes de construcción de nuevos balcones o ampliación de los mismos, todos ellos en inmuebles residenciales. La moción de control es consecuencia de la interlelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 29 de abril de 2021, publicado en el BOG del 24 de junio, se aprueba definitivamente la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana. Normas Urbanísticas Generales.

A lo largo de la tramitación de modificación de las referidas Normas Urbanísticas Generales, uno de los aspectos más novedosos que “se vendió” era la decisión de facilitar la construcción de nuevos balcones en inmuebles residenciales. Así, en el artículo 31 de la citada normativa se recoge lo siguiente: “En los edificios residenciales, estos vuelos abiertos computarán a partir de la superficie

dagokion azalera eraiki itxiaren % 10 hartuko da kontuan».Era berean, 31.2 artikuluak honako hau dio: «Aitzitik, eraikigarritasun horren barruan ez dira kontuan hartuko espazio eta elementu hauek: Hegalkin irekiak (balkoiak, terrazak, eguterak, etab.), etxebizitza-unitate bakoitzeko, haren azalera itxi eraikiaren % 10era arte».

que computará el 10% de la superficie construida cerrada referida a cada unidad de vivienda.”. Igualmente, el artículo 31.2 dice lo siguiente: “Por el contrario, no computarán como parte de la citada edificabilidad los espacios y elementos siguientes: Los vuelos abiertos (balcones, terrazas, solanas, etc) por cada unidad de vivienda hasta una superficie equivalente al 10% de la superficie cerrada construida de la misma.”

Egia esan, eraikitako etxebizitza-parkean esku hartzeko aukera, balkoiak eraikitzea eta/edo handitzea ahalbidetuz edo erraztuz, berritzailea izan zen, are gehiago kontuan hartuta balkoidun etxebizitzen eskari gero eta handiagoa, COVID-19aren pandemiak areagotuta.

Ciertamente, la posibilidad de intervenir sobre el parque residencial construido permitiendo o favoreciendo la construcción de balcones y/o su posible ampliación resultó novedosa, máxime teniendo en cuenta la creciente demanda de viviendas con balcones, intensificada por la pandemia del COVID19.

Horregatik, 2021eko urrian, Hirigintza Sostengagarriko zuzendariaren agerraldia eskatu genuen, udal zuzendaritza horretako langileen informazio-irizpideei buruzko informazioa eman zezan. Agerraldi horretan, HAPOren Hirigintza Arauetan jasotako zenbait arau nabarmendu zituen, eta adierazi zuen agian zenbait aldaketa egin behar zirela balkoi berriak eraiki ahal izateko edo balkoi horietako batzuk handitu ahal izateko, betiere baimen horiekin alboko beste bizitegi-higiezin batzuei kalterik egiten ez bazaie.

Por ello, ya en octubre de 2021, solicitamos la comparecencia del director de Urbanismo Sostenible, al objeto de que pudiera informar sobre los criterios informadores del personal de dicho departamento municipal. Con ocasión de la citada comparecencia, se puso de relieve la existencia de una serie de normas, contenidas en las Normas Urbanísticas del PGOU, que quizás pudieran requerir la necesidad de algunas modificaciones para poder permitir la construcción de nuevos balcones o la posible ampliación de algunos de ellos, siempre que con dichas autorizaciones no se perjudicase a otros inmuebles residenciales colindantes.

Horri buruz Udal Gobernuak interpelatuta, Hirigintza Jasangarriko zinegotzi ordezkariak erantzun zigun esanez gai konplexua dela, are gehiago eskaerak dagoeneko eraikita dauden eraikinei buruzkoak direnean, aplikagarria zaien araudia askotarikoa baita. Ildo horretan, onartu zuen beharrezkoa izan daitekeela hirigintza-arau batzuen edukia berrikustea, horietako batzuk ezabatzeko edo malgutzeko.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, la delegada de Urbanismo Sostenible nos contestó que se trata de un tema complejo, máxime cuando las solicitudes se refieren a edificios construidos, ya que la normativa que les resulta de aplicación es diversa. En este sentido admitió que puede ser necesario revisar el contenido de algunas normas urbanísticas, al objeto de eliminar o flexibilizar algunas de ellas.

Hala ere, uste dugu gai horri bultzada handiagoa eman behar zaiola; izan ere, erkidego batzuek fatxadak zaharberritzeko obrak aprobetxa ditzakete gai horri heltzeko, kostuak merkatuz eta erasanak murriztuz.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatu duen zinegotziak dakarren KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, bere baliabideak edo kanpokoak erabiliz, azterlan bat egin dezala, eraikitako higiezinetan balkoi berriak eraikitzeko edo handitzeko eskaerei aplikatu beharreko hirigintza-araudia berrikusteko.

2.- Era berean, azterlan hori amaitu ondoren, hala badagokio, hirigintza-arauetan egin beharreko aldaketak izapidetzeko eskatzen dio.

Donostia, 2023ko azaroaren 17a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

Sin embargo, entendemos necesario dar un mayor impulso a esta cuestión, ya que algunas de las comunidades podrían aprovechar las obras de restauración de fachadas para abordar esta cuestión, abaratando los costos y disminuyendo las afecciones.

A la vista de todo ello el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, por medios propios o externos, encargue la realización de un estudio que revise la normativa urbanística de aplicación a las solicitudes para construcción de nuevos balcones en inmuebles construidos o para su ampliación.

2.- Asimismo se insta a que, una vez concluido el citado estudio, se tramite las, en su caso, modificaciones oportunas en las normas urbanísticas.

Donostia, a 17 de noviembre de 2023

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del grupo municipal EH BILDU”

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el señor D. Ricardo Burutaran Ferré y la señora D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Marrutxipiko eremuaren mantenua dela eta.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 19an prentsa bidez jakin genuen Dbuseko kotxera azpiko eremuan, Marrutxipin, dagoen AHT materiala eramatea eskatu diola Udalak Adifi. Irakurri genuenarengatik, arrazoia da AHTko materialen artean dauden tutu handietan jendea egoten dela lotan. Aspaldi dago eremu hori hondakinez eta materialez betea eta aspalditik ez da haren mantenurik egiten.

Honi guztiari buruz galdetu genion Udal Gobernuari eta zinegotzi ordezkariak erantzun zigun Udal Gobernuak ez diola Adifi eskaerarik egin, eta gainera bertan dagoen materiala eta tutuak Gipuzkoako Foru Aldundiarenak direla. Zehazki, Marrutxipiko errepide berriaren lanetan erabiltzen ari diren materiala dela.

Bertan bizi den jendeari buruz galdetuta, zinegotzi ordezkariak esan zigun zortzi pertsona identifikatu zituztela bertan; horietako bat Abegi-etxean zegoela eta beste bat, GLUZekin harremanetan. Besteei buruz ez zekien ezer ez.

**II.2.13. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el mantenimiento de la zona de Marrutxipi.**

"La concejala del grupo municipal EH BILDU, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su consideración en el Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacios Públicos el 13 de noviembre de 2023.

JUSTIFICACIÓN

El 19 de octubre, tuvimos conocimiento, mediante la prensa, de que el Ayuntamiento había solicitado a Adifi que retirara el material del TAV que se encuentra en la zona bajo las cocheras de Dbus, en Marrutxipi. Según lo que hemos leído, la razón es que hay personas que pernoctan en el interior de los grandes tubos que hay entre los materiales del TAV. La zona está llena de residuos y materiales desde hace tiempo, y también hace mucho tiempo que no se hacen labores de mantenimiento en ella.

Preguntamos sobre esta cuestión al Gobierno Municipal y el concejal delegado nos respondió que el Gobierno Municipal no ha hecho ninguna solicitud a Adif y que, además, el material y las tuberías que hay en la zona son de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En concreto, se trata de material que se está utilizando en las obras de la nueva carretera de Marrutxipi.

Preguntamos al concejal delegado sobre las personas que viven allí, y su respuesta fue que habían sido identificadas ocho personas. Una de ellas estaba en el Centro de Acogida y otra, en contacto con la SMUS (Servicio Municipal de Urgencias Sociales). De los demás, no sabía nada.

Bestalde, gogorarazi behar dugu 2021ean Ekialdeko Barrutiak eta Udal Gobernuak onartu zutela eremu horretan Sorleku parkea egitea. 2023ko martxoan jendaurrean aurkeztu zuten Sorleku parkeko proiektua eta hura martxan jartzeko epea ireki zen. Sorleku parkearen etorkizunari buruz, zinegotzi ordezkariak kontatu zigun exekuzio-proiektua idatzia dagoela jada eta urte honen amaieran onartuko duela Tokiko Gobernu Batzordeak. Sorlekuko lanak 2024eko uda amaieran hasiko omen dira eta hura egiteko epea 5 hilabetekoa da.

Argi dago eremu hori hondakinez betea dagoela eta, bertan proiektu bat egonik, ezinbestekoa dela lehenbailehen esku hartzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiari eska diezaiola Marrutxipiko eremua garbitzea eta bertan dauden materialak, hondakinak eta tutuak lehenbailehen kentzea.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Marrutxipiko eremua garbitzerakoan, bertan lo egiten duten pertsonekin harremanetan jar daitezen udal gizarte zerbitzuak eta GLUZetik, negu atarian gaudela kontuan hartuta, aterpe bat eskaintzeko.

Donostian, 2023ko azaroaren 17an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Por otro lado, debemos recordar que, en 2021, el Distrito Este y el Gobierno Municipal aprobaron la construcción del parque de Sorleku en esta zona. En marzo de 2023, se presentó públicamente el proyecto de dicho parque, y se abrió el plazo para su puesta en marcha. Sobre el futuro del parque de Sorleku, el concejal delegado nos informó de que el proyecto de ejecución ya está redactado y de que será aprobado por la Junta de Gobierno Local a finales de este año. Señaló que las obras del parque comenzarán a finales del verano de 2024 y que el plazo para llevarlas a cabo es de 5 meses.

Es evidente que esta zona está llena de residuos, y que la existencia de un proyecto para ella hace imprescindible una actuación urgente.

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que solicite a la Diputación Foral de Gipuzkoa la limpieza y retirada urgente de los materiales, residuos y tuberías existentes en el área de Marrutxipi.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, cuando se limpie la zona de Marrutxipi, se pongan en contacto con las personas que pernoctan en ella, para que los servicios sociales municipales y el SMUS (Servicio Municipal de Urgencias Sociales) les ofrezcan un refugio, teniendo en cuenta que el invierno está cerca.

San Sebastián, 17 de noviembre de 2023

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza González García, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BATAK ETA BERROGEI ETA HAMABOSTEAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS TRECE HORAS Y CINCUENTA Y CINCO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**